

Baltzolako ipuinak liburua kaleratu dau Rafa Ugalde idazleak

13. orrialdea

Zabalarentzat Espainiako Kopea

Bartzelonan jokatu zan atzenengo proba zemendiaren 25ean. Dimoztarri ukondoa atera jakon eta ezin izan eban amaitu. Ha-ta guzti be, bigarren egin eban proba horretan eta Espainiako Kopea irabazi eban. Espainia mailako titulurik inportanteenak irabazi ditu Itziar Zabalak denporaldi honetan, Espainiako Bulder Txapelketea be berak irabazi dau-eta. 10. orrialdea



Axlor eta Baltzolako kobak kultur ondasun izentau ditue

12. orrialdea

TOKIKOM

begitu

arratia ubide zeberio

285

2017ko abenduaren 1a
hamabostekaria
www.begitu.org



Euskerea ospatuteko jaia

Abenduaren 3an, Euskerearen Nazinoarteko Eguna da. Euske-reagazko konpromisoa hartuteko eguna, hizkuntz ohiturak aldatzekoa, euskeraz biziteko eskubidea aldarrikatu eta

euskeraz ondo pasau eta euskerea bera ospatuteko eguna. Arratiako herrietan ekitaldi ugari prestatu ditue abenduaren 1etik 3ra euskeraren alde egiten dan lana plazara aterateko. 8. orrialdea

Igorreko Ziklo-krosa abenduaren 10ean



Olabarriko zirkuituan jokatu da Arratiako Ziklista Elkarteak antolatuten dauan XLI. Igorreko Ziklo-krosa. Nazinoarteko proba izateaz gainera, Euskadi Basque Country Challengeko proba izango da aurten be.

Abenduaren 10ean, Arratiako txirindulariakaz batera, mundu zabaleko puntako ziklo-krosariak egotekoak dira Igorren, Patrick Van Leeuwen, Marco Ponta, Elle Anderson edo Sara Casasola, barbarako. Arratiarrak Kadete eta Gazte mailan dagoz. Master mailako lasterketarik ez da egongo aurten.

Goizeko 09:30ean hasiko dira lasterketak. Lehenengotik, Kadeteak eta Gazteak neurtuko dira eta 11:00etatik aurrera izango dira proba nagusiak. Holan, Elite mailako andrak 11:30ean ekingo deusie zirkuituari eta gizonak 12:30ean. 11. orrialdea

ARRATIA

Genero indarkeria kasu gitxiago atendidu ditu aurten AUMk

Arratiako Udalen Mankomunitateak (AUM) zemendiaren 15era arte, 13 andrazko atendidu dauz aurten genero indarkeria dala-eta, igaz baino 10 gitxiago. Salaketea ipini dabenen porzentajeak barriz, gora egin dau. Izan be zortzik ipini dabe salaketea, %61,5ek; igaz baino 5 puntu gehiago. Atendidutako gehienak 40 urtetik gorakoak izan dira.

Aurten atendidutako guztiak batek izan ezik, laguntza psikologikoa jaso dabe. Bik laguntza psikologikoz gainera, laguntza juridikoa be jaso dabe, eta beste bik, ekonomikoa. Gizarte Hezkuntzaren laguntza be jaso eben andrazko bik. 5. orrialdea

ZEANURI

San Millan milizianoaren gopuzkiak lurretik atera dabez Altunganan

Zemendiaren 18an, Aranzadi Zientzia Elkarteak, Paco Etxeberria auzi medikuaren zuzendaritzapean, Pedro San Millan 1936ko gerrako milizianoaren gopuzkiak atera ebezan Altungana mendiko lubaki batetik. Bere ondoan beste lau gopuzkin topau ebezan. San Millanen familiakoak batera, Eusebio Larrazabal Zeanuriko alkatea eta Aintzane Ezenarro Gogora institutuko lehendakaria be egon ziran. 7. orrialdea

P-TRAINER
Jar zaitetz forman 45 minututan.
2 saio astean.
Utzi aitzakiak alde batera!

615724388 info@ptrainer.es
Lehendakari Agirre, 5 48140 Igorre

ARRATIA

Errota Fundazioaren ekimenez Arratiako Enpresa Foroa sortu da

Foroaren helburua, Arratiako enpresen erronkai alkarregaz aurre egitea da. Lehenengo saioan, Batzek, Ilunbek, Ormazabalek, WalterPack-ek, Ikertek-ek, Arbeguik, Morgak, Comecaranek, QuickRent-ek, eta Zulaibar Arratiako Lanbide Ikastegiak hartu eben parte, baina enpresa gehiagok be adierazo dabela foroaren gaineko interesa dino Iratxe Goikoetxea Errota Fundazioaren koordinatzaileak. 7. orrialdea

ZAZPI HAIZETARA
GABON ZORIONTSUAK OPA DEUTSUEGUZ!
BERTAKOA KONTSUMITZEAK HERRI EGITEN GAITU
Agirre Lehendakaria 11

Euskal Ekoizleen Aldeko Ekimena

ARRATIA KOLOREETAN

UDAZKEN KOLOREETAN 11 BASO-JOLAS! (I)

Hamaika koloretako basoak daukaguz gure artean: urte osoan zehar berde iluna mantendutena daben basoak, batzuk hosto guztiak galdu arte marroi horixkak diranak, beste batzuk ordea gorritu egiten jakuz eta eder-eder ikusten dira zemendiako eguzki izpi azpian. Hamaika koloretako basoak, helduok, mendi tontorretatik ikusteko ohitura daukagu: Gorbeiaiko kuruzetik edertasunaren idea erromantikoa sentiduten dogu barruan gutariko askok udagoineko egun honeetan. Ba hamaika koloretako basoak ikusten dabez umeak lurreko hostoetan, udagoienean lupetz bihurtutena dan lurragaz olgetan, udan siku egon dan errekatxoak ur argiagoo edo ilunagoa dakarrenean. Kolo-

re desbardinak onddo eta zizak. Kolore desbardinak limako, bare, eta barraskiloak. 11 kolore, eta 11 usain, 11 testura, 11 tenperatura, 11 doinu... jolasean baino ezin diranak igarri.

Udagoieneko koloreak Plasti-decorreko 24ko pack-ean dagozan margoakaz pintau leikez; eta onddoak desbardinutena ikasi eskolako 2.0 arbel digitalean. Liburutegian gure inguru ezetuteko beharrezkoak diran liburuak eskatu, eta Youtuben topau geinke zein dan zapaburu baten ugalketa zikloa.

Baina Gorbeiaira igoterakoan sentiduten dogun horregaz gure txikitxoek hazi gura badoguz zeozer gehiago behar dan susmoa daukagu.

"Haur osasuntsuak haziko badoguz, natureagaz harremanetan ipini eta lurra maitatzeko denporea emon beharko deutsegu, lurra salbau dagiela eskatu baino lehen" dino David Sobelek ingurumen hezkuntzaren gainean hausnartutena, hurrengo belaunaldia emoten eta eskatutena gabizaren arteko desorekea agerian itxiz. Zenbat denpora pasau dogu hezitzaileok udagoien honetan harreman hori elikatutena? Garaiz gabiz oindino!

Udazken koloreetan 11 jolas (*Berdean hezi*, Heike Freireren liburutik hartuak):

1- Zapaburuak haztea: sare bat eta putzu bateko urez edo eurirez betetako ontzi bat hartu, bertan zapaburuak sartu. Harri batzuk be ipini zeinkiez, eta alga txikien ordez letxuga egosia, arrainen-tzakoa janaria eta okela-xehatua



be jaten dabe zapaburuak. Igel gazteak urmael berean askatu. 2- Perretxikoak bilatzea: udagoiena, udabarriagaz batera, perretxikotan joateko sasoi onena da. Orbel artean perretxiko bila

ibiltea abentura bat da, desafioa ikusmenarentzat, eta gozamen zentzumen guztiarentzat. Batu eta gero jaten hasi orduko, inguruko a(r)ituai galdetu!

Zaztaparrak Asti Taldea

TELEFONO INTERESGARRIAK

Larrialdiak

Galdakaoko Ospitalea 94 400 70 00
SOS DEIAK 112

Guardiako Farmaziak

09:00etatik 22:00etara

Zemendiaren 27tik abenduaren 3ra

Goikoetxea. Dima. Ugarana 33

Tel.: 94 673 70 54

22:00etatik 09:00etara

Iruarrizaga. Amorebieta-Etxano.

Abenduaren 4tik 10era

Zamalloa. Areatza. Askatasun kalea 15

Tel.: 94 673 93 22

22:00etatik 09:00etara

Aranburu-Guarrotxena. Amorebieta-Etxano.

Abenduaren 11tik 17ra

Rodriguez Martinez. Igorre. Agirre Lehendakaria 27

Tel.: 94 673 61 09

22:00etatik 09:00etara

Guarrotxena. Amorebieta-Etxano.

Zeberioak ez dau guardiarik egiten.

Urte osoan

22:00etatik 09:00etara

Ana Gometza. Francisco Kortabarria 2. Basauri.

Medikuak

Arantzazu: 94 631 56 89

Artea: 94 673 92 11

Areatza: 94 631 71 52

Bedia: 94 631 34 13

Dima: 94 631 56 30

Igorre: 94 600 74 63

Lemoa: 94 631 31 16

Ubide: 945 38 50 14

Zeanuri: 94 673 91 49

Zeberio: 94 648 20 79

Udaletxeak

Arantzazu: 94 631 56 89

Artea: 94 673 92 05

Areatza: 94 673 90 10

Bedia: 94 631 42 00

Dima: 94 631 57 25

Igorre: 94 631 53 84

Lemoa: 94 631 30 05

Ubide: 945 45 03 22

Zeanuri: 94 673 91 46

Zeberio: 94 648 10 79

Udalen Mankomunitatea

94 631 17 17 / Faxe 94 631 92 15

Gorbeialde

94 631 55 25 / Faxe 94 631 71 01

Parketxea 94 673 92 79

Igorreko Kultur Etxea

94 673 62 51

Gorbeialde Irratia

94 631 52 90

Euskotren 902 543 210

Areatzako Notarioritza

94 673 92 26

Bizkaibus 94 612 55 55

Zeanuri-Lemoa-Ospitalea-Bilbo

Lanegunetan: Lehenengoa 05:00etan.

Ordu erdiro: 05:15etik 06:45era.

Orduro: 06:45etik 21:45era. Azken zerbitzua 22:00etan.

Zapatuetan: Lehenengoa 05:00etan.

Orduro: 05:45etik 21:45era.

Jaiegunetan: 07:45etik 21:45era orduro.

Bilbo-Ospitalea-Lemoa-Zeanuri

Lanegun eta zapatuetan: 06:15etik 22:15era orduro.

Jaiegunetan orduro 07:15etik 22:15era.

Durango-Lemoa-Ospitalea-Bilbo

Lanegun eta zapatuetan: 06:30etik

22:30etara 30 minuturo, azkenengoa

22:15ean Galdakaoraino.

Jaiegunetan: 07:00etatik 22:00etara 30

minuturo, azkenengo zerbitzua 22:45ean

Galdakaoraino.

Bilbo-Ospitalea-Lemoa-Durango

Lanegun eta zapatuetan 06:30etik 22:30era

30 minuturo.

Jaiegunetan 07:00etatik 22:30era 30

minuturo.

Ubide-Otxandio-Lemoa-Bilbo

Ubidetik urteerak, lanegun eta zapatuetan:

06:45etik 20:45era bi ordurik behin.

Jaiegunetan: 08:45etik 20:45era bi ordurik

behin.

Otxandiotik urtekerak: Lanegun eta

zapatuetan: 06:55etik 20:55era orduro.

Jaiegunetan: 08:55etik 20:55era orduro.

Bilbo-Lemoa-Otxandio-Ubide

Lanegun, zapatu eta jaiegunetan,

Otxandiora: 06:45etik 20:45era orduro.

Ubidera: 06:45etik 20:45era bi ordurik

behin.

Zeanuri-Lemoa-Bilbo

(Autopistatik)

Lanegunetan: 07:00etan lehena, eta 08:15etik

21:15era orduro.

Zapatu eta jaiegunetan ez dago zerbitzurik.

Bilbo-Lemoa-Zeanuri

(Autopistatik)

Lanegunetan: 07:00etatik 21:00etara orduro.

Zapatu eta jaiegunetan ez dago zerbitzurik.

Zeberio-Ugao

Lanegun eta zapatuetan:

Zeberiotik: 7:00, 08:20, 09:10*, 11:00, 11:45*,

14:10, 15:00, 16:10, 18:30*, 20:20.

* Basauriraino (Ariz) heltzean da.

Gainontzekoak Ugaoraino. Jaiegunetan ez

dago zerbitzurik.

Ugao-Zeberio

Lanegun eta zapatuetan:

Ugaotik: 8:40, 10:20, 11:20, 14:30, 16:30,

19:40.

Basauritik (Ariz): 10:00, 19:20. Jaiegunetan ez

dago zerbitzurik.

Artea-Zeberio-Ugao

Lanegun eta zapatuetan: 6:50, 8:00*, 14:00,

16:00.

* Igorretik urtetena da bost minutu lehenago.

Jaiegunetan ez dago zerbitzurik.

Ugao-Zeberio-Artea

Lanegun eta zapatuetan:

Ugaotik: 7:20*, 13:05, 15:30, 20:40.

Basauritik (Ariz): 12:45.

* Igorreko Instituturaino heltzean dira.

Jaiegunetan ez dago zerbitzurik.

Ermitabarri-Arriorriaga

Jaiegunetan: 8:10, 11:10, 14:10, 17:10, 20:10.

Arriorriaga-Ermitabarri

Jaiegunetan: 10:20, 13:20, 16:20, 19:20.

La Union 94 427 11 11

Bilbo-Gasteiz

Lanegunetan: Ubidekoak 09:15ean urtetena

dau eta Otxandioakoak 16:00etan.

Zapatuetan: Ubidekoak 09:00etan eta

16:30ean urtetena dau Bilbotik.

Jaiegunetan: Ubidekoak 10:00etan urtetena

dau eta Otxandioakoak 18:30ean.

Gasteiz-Bilbo

Lanegunetan: Ubidekoak 09:00etan eta

16:15ean urtetena dau Gasteizetik eta

Otxandioakoak 10:30ean.

Zapatuetan: Otxandioakoak 10:30ean urtetena

dau Gasteizetik eta Ubidekoak 16:30ean.

Jaiegunetan: Ubidekoak 16:30ean urtetena

dau Gasteizetik. Otxandioak ez dago.



Argitaratzailea: ZERTU Kultur Elkartea.

Helbidea: Herriko Plaza 24, 48142 Artea.

Telefonoa: 94 631 73 14.

Helbide elektronikoa: begitu@topagunea.com

Webgunea: www.begitu.org

Zuzendaria: Iñigo Iruarrizaga.

Erredakzino burua: Beatriz Azpiri. Telefonoa: 94 631 73 14 eta 649 979 112.

Erredakzino taldea: Illart Gumuzio eta Alvaro Rabelli.

Maketazinoa: Beatriz Azpiri eta Iñigo Iruarrizaga.

Publizidatea: Iñigo Iruarrizaga. Telefonoa: 94 631 73 14 eta 649 979 115.

Banaketea: Roxana Constantin (Arantzazu, Artea eta Ubide), Ibai Milikua (Areatza), Unai Agorreta, Xabier Beitia, Marta Rodriguez eta Rut Rodriguez (Bedia eta Lemoa), Amaia Uriarte (Dima), Iker Perez eta Jabi Peribañez (Igorre), Iratxe Arribas (Zeanuri), eta Berbizkunde Arroita (Zeberio).

Tiradea: 7.200 ale.

Inprimategia: Iparragirre Editoriala.

Ale kopurua 7.200 / Lege gordailua SS-512/02 / ISSN zenbakia 1579-5519

Babesleak:

Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak diruz lagundutakoa



Bizkaia
foru aldundia
diputación foral

ZEURE BERBEA

Areatzako Emakumeen Foroak ziklo bat amaitutzat emon dau

Areatzako Emakumeen Foroa 2007. urtean sortu zan Areatzako I. Bardintasun Planaren ondorioz. Bere sorreran Areatzako alkarte guztiak eta gai horretan interesauta egozanak konbidau ziran foroan parte hartzeako. Denporeagaz, Foroa bere nortasun propioa hartzean joan da eta parte hartzaileok modu propioan eta ez talde baten izenean jardun dogu lanean. Atzen 10 urteotan Foroan parte hartu dogunok alkarte gaituan helburuak, aukera bardintasunak bultzatutea, andren bisibilizazioa eta eskubideen alde lan egitea, feminismoa ezetu arazotea eta feminismoan sakontzea izan dira.

Hainbat ekintza antolatu doguz Areatzan eta Arratia mailan: Nazinoarteko egunen kanpainak (zemendiak 25, martiak 8...) literatur tertuliak, dokumentalak eta debateak, feminismoari buruzko formakuntza Marcela Lagardezagaz, Coaching ikastaroa, Areatzako andren memoriaren dokumentala, abortoarene aldeko kanpainak, Emakumeen Mundu Martxan parte hartu dogu eta herriko hainbat batzordetan, Foroko Facebooka informazioagaz elikatu dogu, eta abar.

Andrentzako lokala be lortu dogu. Espazio propioa edukitea beharrezkoa da alde praktikoan eta sinbolikoan.

Emakumeen gela aurrerantzean be andren interes eta beharizanetarako izatea eskatzen dogu.

Arratia mailan feminismoaren inguruan sare bat sortzean lagundu dogu. Hau oso garrantzitsua da ekintzak koordinetako, antolatuta egoteko eta batez be sareari esker feminismoak presentzia handiagoa daukalako Arratian.

Arratiako Jabekuntza Eskolea sortzea lortu da. Areatzako Emakume Foroak, Arratiako beste andra taldeak eta Mankomunidadeko teknikariak egindako lanari esker eskola hau errealidade bihurtu dogu.

Maila propioan be Forokidea izatea sano aberasgarria izan da formakuntzatik eta egin doguzan harremanengaitik. Jabekuntza indibidualetik jabekuntza kolektiborantza goaz, eta horixe dala bide egokia uste dogu.

Gaur, neurri baten, Foroak egiten eban lana Arratiako Jabekuntza Eskoleak, Areatzako Udaleko Bardintasun zinegotziak eta Mankomunidadeko teknikariak egiten dabe eta bide barriak hartu behar doguzala ebatzi dogu. Feminismoaren alde lan egiten jarraituko dogu beti, baina Foroaren ibilbidea amaitutzat emoten dogu.

Baina ondino lan eskerga dago egiteko. Horregaitik, Areatzako eta Arratiako herritarroi dei egiten deusuegu andrakanako diskriminazioa eta biolentziaren kontrako burrukan jarraitzeko eta matxismoari aurre egiteko; patriarkadua deseustatzeko bide luzea daukagu eta.

Eskerrik asko babesia eta konfiantza erakutsi deuskuzuen guztioi!

AREATZAKO EMAKUMEEN FOROA

Zure eretxia agertu gura badozu, Zeure Berbea atala zabalik daukazu. Ez da komenidu makinazko 15 lerro baino gehiago idazterik gutunotan. Izena, telefonoa, helbidea eta Nortasun Agiriaren zenbakia agertu beharko dira. Laburtu behar izan ezker, BEGITUK eskubidea dauka horretarako. Gutunak hona bidali: Zertu Kultur Elkarte. Herriko plaza, 24. 48.142 Artea edo beginu@topagunea.com helbidera.

GEURE BERBATEGIAREN LEIHOTXUA

ANGEL LARREA ETA JUAN REKALDE

Uzku



Haretxa eta artea, hau da, *Quercus* generoko arbola espezieetako frutuari uzku, ezku edo kuzku esaten deusagu Arratia inguruan (uskurre, eskurre edo kuskurre, agoskatuta). Arteak uzku minkatxak edo mingotsak eta gozoak emoten ditu. Uzku gozoak animalientzako janaria izaten dira: basurde, katamixar edo txarrientzat, esate baterako. Oin, uzkurak ereteko sasoia da gure baso eta landetan.

ERETXIA

Nola aldatzen diren gauzak... kamaradak

Hertzainak taldearen kantu hau etorri jatan burura BEGITUK, abenduaren 1ean HIESaren aurkako Nazinoarteko Egunaren inguruan hausnartzeko eskaerea egin eustenean.

Nazinoarteko egunak, erabilearen erabileraz kolorea galdu dabelakoan nago... Egun guztiak bereziak edo aldarrikapen egun bihurtzen badoguz, berezitasuna eta aldarrikapena bidean galtzean diralako... Halanda be, HIESAK 1980 eta 1990ko hamarkadetan suposatu ebana hipokanpoan gordeta daukagunontzat, aurrean daukagun arazoa zelangoa dan gogoratzen dogu. Erdi kostakoa eta aita medikua izanda Bermeo, Ondarroa, edo heroinearen erabilerea oso hedatua eukien gure herrietan, HIESaren atzaparretan generazio askotan eragindako sarraskiak hurretik ezetu dodaz.

Orain 25 urte existiduten ez zan gaixotasuna, estigma sozial handiagaz jaio zan, moral kontuak tartean sartuta, "drogadikto edo homosexualen" gaixotasuna bihurtu zalako. Merezidutako zigorra, esaten eban batzuek... Zorionez moralina kristau hori eta gaixoen gainean egindako estigmatizazio negatiboa desagertuz doa. Gaixok kulpabilizetea, distantziak distantzi, azken egunotan pil-pilean egon dan gai bategaz alderatuz, bortxaketa bat jasoten daben andrak kulpabilizetea bezain krudela zalako.

1996. urterarte gaixoi heriotz zigorra baino ezin geuntsen opatu, gaixotasun "oportunistak" ekiditeko neurriak hartu eta heriotzea heltzearen egoanean zaintza aringarriak. Urte horretan terapia hirukotxa dalakoa merkaturatu zan eta horrek onura ikarragarriak ekarri ebazan: HIESA eukien gaixontzat (tratamentuari esker gaixoen bizi iraupena eta kalidadea hobetuz joan dalako) eta batez be AbbVie enpresa farmazeutiko amerikarrarentzat, irabazi potoloak lortu



ITSASO BENGOETXEA
Medikua

ebazalako harrezkerotik, patentea 20 urtetik gora luzatzeko burruka legala tartean. Honen harira, gaixotasun honek Afrika eta Hego Amerika odolusten dauazan bitartean, guk geuk, enpresa farmazeutikoak tratamentuen kostuaren gainean eta estamentu desbardinak, eleiza katolikoak esaterako, prebentziorako erreminten gainean

daukien jarkerea ez salatzeak beste artikulu baterako gaia emon leike... norbanakoen interes hutsen mundua gurea!

Azken urteotan, gizarteak orokorrean, HIESari bildurra kendu deusala uste dot eta gaixotasun kronikoen kutxan gorde dogula, artrosiagaz batera... Gure gazteak HIESaren gainean daukien pertzepzioaren ondorioz bildur barik arriskutzen dira kutsatzera, euren kontzientzietan HIESAK tratamentua daukan gaixotasuna baino ez dalako. Eta okerragoa dana, 30-50 urte bitartekook eta epidemia zer izan zan zuzenean bizi izan genduanok, neurri prebentiboen gaineko jarkerea aldatu dogu. EAEn urtero GIB birusak kutsatutako 160 kasu barri agertzen dira, eta askotan diagnostikoa "berandu" egiten da kasu barri gehienak "helduak" eta sexu bidezko transmisioaz kutsatutakoak diralako.

Pasteur-en ikerketaz gerotik, gaixotasun kutsakorrai aurre egiteko aukera bi baino ez daukaguzala argi daukagu medikuok: bata, kontaktua ekiditea, prebentzinoa (heziketee, berreziketee eta hain beharrezkoak diran txertoak izatea), eta bestea tratamentua: GIB birusa hilgo daben farmakoak lortzea (mundu ideal baten, osasun gaien inguruko negozioa ekiditeko, administrazioak bultzatutako ikerketa publikoan lortutakoa).

Ezin amaitu hausnarketa hau, gaixoen gizarteratzean eta ikus-taraztean, lan handia egin daben alkarte eta norbanakoak gorripatu barik... 25 urteko burruka honetan Auswichecko juduen antzera, Osakidetza euren historia klinikoak puntu gorriagaz seinaletan ebazala bizi izan dabenak, gizarterearen isolamentua sufridu dabenak, kideak bidean galdu eta esfera desbardinetan estereotipoak apurtuz heriotzearen inguruan ezkutuan bizi eta aurrera egitea lortu dabenak: Bizkaiko Batzar Orokorretako kide dan Josu Unanue esate baterako. Euren ondo dakie zer izan dan hau: HIESaren gainean asko aldatu dira gauzak, kamaradak!!

LUMATUTEN



XABIER LAMIKIZ

Historiaren erabilpen politikoaz

Muturreko postmodernismoak dino historialariak ezin dauala iragana ulertu, are gitxiago berreskuratu. Historialaria bere garaiko ideen, aurrerretxien eta sinismenen menpe dago, euren kutsaduratik iges egin ezinda. Ikuspegi horrek, funtsean, historialaria fikzino sortzaile bihurtzen dau, eta beraz zilegi da historialariak iraganari buruz edozer gauza esaten badau, edozein astakeri bada be. Holokaustoa inoz gertatu ez zala, esaterako. Zorionez historialari gehienak ez dabe oindino burua galdu eta holangoak gitxiengo txiki batek bakarrik defendiduten ditu. Baina badago iragana manipuletako modu leunago, ohikoago eta herrikoiago bat, aspaldi-aspaldikoa dana eta guzti-guztiori ikutzen gaituana: historiaren erabilpen politiko estadu-nazinoaren existentzia

justifiketako.

Azken hilabeteotan, Katalunian gertatzen dabilenagaz lotuta, ageri-agerian geratu da iraganak orainaldi politikoa justifiketako daukan indarra. Katalan askoren independentzia gogoak azalpen historikoa dauka? Bai eta ez litzateke erantzun politikoki zuzena, baina ziur naz berba honeek irakurten zabizienon gehiengoak ez deusala galdera horri erdibideko erantzunik emongo. Alderantziz be planteau daiteke itauna: Historiak erakusten deusku Katalunia betidanik Espainia izan dala? Historia aho biko ezpatea da. Horregaitik iraganetik bakarrik orainean balioarriak jakuzan gauzak aukeratzen doguz, eta besteak baztertu. Ze, neurri baten, guztiok gara postmodernoak. Adibide bat. Hona hemen Sabino Aranak Kataluniari buruz eukan eretxia: "*Cataluña es española por su origen, por su naturaleza política, por su raza, por su carácter y por sus costumbres*". Orain imajinau gure lehendakaria Barzelonan. Kataluniako gobernuak konbidautu berbaldi bat emotera doa bertako legebiltzarrean. Ahoa zabaldu eta zera dino: "*Ya lo dijo Sabino Arana, Cataluña es...*".

ZERTZEAN



MARIA ATUTXA

Gaia jarrita: "Euskerea"

1

Hazi eder bat landatu gendun duela milaka urte hazia apurka hasten joan da urtez urte, tartez tartez lore hori ondo jagotera animau zaitetz gizarte holan segidu beharko dogu zuhaitz bat bihurtu arte.

2

Sei mila, zazpi mila hizkuntzaz beteta dago sakela jakina guzti horiek oso garrantzitsuak direla hizkuntza batzuek euki arren munduan fama itzela jakizue euskerak berak ere handi egiten gaituela.

3

Gogo handia dot titulua behingo baten eukitzeko ta bertan jartzen dauen guztia poz-pozik irakurtzeko euskeraren baztar ta txokoak hobeto ezagutzeko hizkuntza hauxe gehiago bizi ta biziki maitatzeko.

4

Oso polita da hizkuntza bat barrutik ezagutzeta bere truko, trikimailuekaz jolasean aritzea zein ederra dan berba danakaz gauza handi bat sortzea ta gauza horren zati txiki bat zu zarela sentitzea.

5

Gure hizkuntzak igaro eban etapa bat nahiko hotza urte luzetxo batzutan zehar izoztu jakon ahotsa azkenean barrero lortu dau lehengo ahots zorrotza zorionez inoz ez da hoztu euskaldunaren bihotza.

6

Hizkuntza asko dagoen arren, gauze bat argi dau, klaru pertsona danok, guzti guztiok gure hizkuntza daukagu euskera, bera, gurea da ta euskerarenak gara gu nork egingo dau euskeraz esan guk egiten ez badogu.

BEGI TXINDORRA

♀♀ "Feminizidioen kontra autodefensa feminista" pankartearen atzean, Arratiako herrietatik joandako 150 lagun inguruk, matxismoak eragindako hilketak salatu eta horreekaz amaitu beharra aldarrikatu eben zemendiaren 25ean Igorreko kaleetan. Horretarako, autodefensa feministea erreminta egokitzat jotzen dabe Arratiako andra taldeak eta talde feministak.

Aurten, hildakoak persona erreal, izen eta abizenakaz eta eskubidedunak izatean ipini gura izan dabe fokoa. Horregaitik, manifestazioa amaitu zanean, aurten Euskal Herrian eraildakoen izenak irakurri ziran, performance bat egin zan eta feminizidioaren neurriaren konziente izateko, ondorengo poteoan, hamar minuturo bozina batek jo eban adierazoteko, munduan gizon batek beste andra bat hil dauala andra izategaitik.



Gorosti
LORAZAINTZA
Lorategien Diseinu eta Gauzatzea
Ureztaketa instalazioa
Mantenua eta Inausketa
Bidosola Industrialdea E2 Pab. 48.142 Artea
Tel: 94 673 96 34 Faxa: 94 673 96 88
gorosti@gorostiscsl.com

agoa
hagin klinika
Ortodontzia
Implanteak
Estetika
Marina Urigoitia Aldekoa
Ondarribia
Bidebarri 1, behea
48140 Igome-Bikala
T. 94 631 50 39
Kalejatu Zerbaita 100
R.P.S. 21/06

ASESORIA Gorbeialde
Juridikoa · Fiskala · Lanakoa · Kontularitza
Askatasun 28, 1B 48143 Areatza
Tfnoa: 94 673 92 93 Faxa: 94 673 92 82
E-posta: gorbeialde@gorbeialde.com

FISIK
FISIOTERAPIA ETA
ERREHABILITAZIO ZENTROA
Tel. 94 685 11 16
LEHENDAKARI AGIRRE, 17 - IGORRE

ARRATIA

Indarkeria matxistea dala-eta, igaz baino 10 andra gitxiago atendidu ditu AUMk

Arratiako Udalen Mankomunitateko (AUM) Gizartekintza Sailak emondako datuen arabera, zemendiaren 15era arte, 13 andrazko atendidu ditu zerbitzuak genero indarkeria dala-eta. 2016an, 23 izan ziran.



Arratiako Udalen Mankomunitatea.

Erredakzioa

Dana dala, datu honetatik ezin da ondorioztatu genero indarkeriak behera egin dauala 2017an Arratian. Gizarte Zerbitzuetara andrazko gitxiago joan arren euren egoera planteetara, beherakada horren zergaitia ez dago jakiterik. "Askotan, nahiz eta propaganda egin edo-eta propaganda etxeetara bialdu, ez da nahikoa izaten andrak informazioa euki eta laguntza eske etorteko" dino AUMko Gizartekintza Zerbitzuko Olaia Urkizak.

Jatorri, edade eta egoera zibil guztietako gizonak erabilten dabe genero indarkeria eta jatorri, edade eta egoera zibil guztietako andrak sufriduten dabe indarkeria hori. Aurten Mankomunitateak atendidutakoen artean, gehienak 40 urtetik gorakoak izan dira.

Moltsorik handiena 41 eta 50 urte artekoa izan da (%38,5); 51 eta 65 urte artekoak, %30,8 izan dira; 17 eta 30 urte artean %15,3 eta 31 eta 40 urte artean beste %15,3.

Jatorriari jagokonean, Bizkaiko 7 andra, estaduko 3 eta atzerrian jaiotako beste 3 atendidu ditu AUMk genero indarkeria dala-eta. Andra honeen ia %85ek seme-alabak ditue; gehienak adin txikiak (%69) eta adin nagusia dituen erdiak be andrearen kargu dagoz.

Zortzik salaketea ipini dabe

Genero indarkeria sufridu daben andrai arreta hobea emoteko, esku hartzean daben erakundeen arteko Protokoloa dauka Arratiako Udalen Mankomunitateak. Ertzaintzak eta Osakidetzak be hartzean dabe parte protokolo

horretan eta genero indarkeria antzeman ezker, Mankomunitate bideratzen ditue biolentzia jasan daben andrak.

Sarbideari jagokonean, aldaketak egon dira eta gehiago izan dira Ertzaintzak bideratutakoak, zuzenean Gizarte Zerbitzuetara jo dabenak baino. Izan be, aurten erdiak baino gehiagok (%53,8) Ertzaintzak bideratuta jo dau Gizarte Zerbitzuetara; igaz, %30,7 izan ziran. Gizarte Zerbitzuetatik %38,5 sartu dira 2017an, eta andrazko bat Osakidetzaren bidez.

AUMko Gizarte Zerbitzuak atendidutako 13 andrazkoetatik 8k salaketea ipini dabe 2017an; hau da, %61,5ek, aurreko urtean baino 5 puntu gehiagok.

Laguntza psikologikoa eta juridikoa

Gizarte Zerbitzuetan, arreta eta laguntza emoteaz gainera, baliabide espezializaduetara (laguntza psikologikoa, juridikoa...) bideratu eta koordinazioa eta kasuaren jarraipena egiten da.

Aurten atendidutako guztiak batek izan ezik, laguntza psikologikoa jaso dabe. Bik laguntza psikologikoaz gainera, laguntza juridikoa be jaso dabe, eta beste bik, ekonomikoa. Gizarte Hezkuntzan Esku Hartzeko laguntza be jaso eben andrazko bik. AUMen, momentu honetan, 3 gizarte hezitzaile dagoz zerbitzua emoten.

Arratian neska edo andra batek indarkeria matxistea bizi badau edo bizi dauanik ezetuten badau, telefono honeetara deitu leike laguntza jasoteko: 112 Larrialdia; 900 840 111 hogetalau orduko, debaldekoa eta konfidentziala, eta 94 631 17 17 AUMko telefonora. Gizarte Zerbitzuak eta Bardihasun Zerbitzuak 08:00retatik 15:00etara atendiduten dabe.

ZEBERIO

Urtailearen 15era arte egin daitezke aurrekontuetarako ekarpenak

Erredakzioa

Zeberioko Udalak herritarren eretxiak jaso gura dauz 2018ko udal aurrekontuak egiteko eta hori dala-eta, prozesu parte hartzailea abiatu dau.

Zeberioztarren proposamen eta ekarpenak lau modutan

jasoko dauz Udalak 2018ko urtailearen 15era arte. Izan be, udalak proposamenak kontuan hartu ahal izateko, proposamen edo ekarpenok udaletxean itxi, udal webgunera edo 689 947 799 telefonora WhatsApp bidez bialdu, edo udaletxeko sarreran dagoan buzoian sartu daitezke.



ARRATIA

Gasteizko Errekaleor auzune askean, kale batek Maurizia Aldeiturriaga izena dauka

Kudeaketa aldetik auzune askea da Errekaleor.

Gazte talde batek erdi hutsik egoan auzoan proiektu bat martxan ipintea ebatzi eban eta gaur egun, gazte mobimentutik harago doan proiektua da.

Auzolanaren bitartez funtzionetan dau, etxebizitza ereduari alternatiba emoten deutso eta euskerea lehenesten dau komunikaziorako.



Huntza taldea.

Erredakzioa

Auzune berezi honetan, Huntza taldearen ekimenez, Maurizia Aldeiturriaga izeneko kale bat dago. Izan be, Errekaleorrek crowdfunding kanpaina bat martxan ipini eban 100.000 euro bildu eta 500 eguzki-plaka ipinteko, etxebizitza eta gune publikoak argiztatu ahal izateko. Berrogei egunetan lortu zan dirua. Eta diru kopuru batetik gorako emolei kale bateri izena ipinteko aukerea emon eutsan autolakuntzak.

Huntza taldea, sei gazte gipuzkoarrek osotuten dabe, tartean, Josune Arakistainek, 2013 eta 2014ko Euskal Herriko Trikitilari Gazteen Txapelketaren irabazleak.

Maurizia erreferente

Oin, Huntza musika taldearen crowdfundingerako ekarpena dala-eta, Errekaleor auzoko kale batek Maurizia Aldeiturriaga izena dauka. "Kale baten izena ezin da arinkiaz aukeratu, urteak pasa ahala bertan segiduko dau-eta. Beraz, guretzat garrantzitsua eta sinbolikoa izango zan nonor edo zerbaisten izena ipini gura geun-

tsala argi geunkan hasikeratik. Kaleri Maurizia Aldeiturriaga izena ipinita helburu bi bete genduzan. Batetik guretzat erreferente bat dan personea omentzea, eta bestetik Mauriziaren irudia gehiago ezetu arazotea, hori posible bada" dinoe Huntza taldekoak.

Taldekieak, Arrasate, Ataun, Itziar eta Hernanikoak dira, danak gipuzkoarrak. "Ez gara Arratiakoak ezta ingurukoak be, baina Maurizia guretzat persona sinbolikoa da: plazetara ateratzen ausartu zan lehen andretako bat izan zan, eta gure taldeko trikitilari eta panderojoleak andrazkoak diranez, nahitaez afinidade apur bat badaukagu Mauriziagaz. Bera lango andrak ez balebe pausu ha emon, batek daki non egongo zan Huntza gaur egun!".

Huntzakoen ustez, Mauriziak baeukan zerbaist berezia. Bere burua animetako joerea eukan jotzen eban bitartean ("Aupa Maurizia!" ezaguna), eta hori sano esanguratsua iruditzen jakie taldekoai. "Ez banabe animau behar, neronek animauko dot neure burua!" esan gurako baleu legez. Argi eta garbi kale hori Mauriziarena izan behar zan!".

ARRATIA

Prekarietateagaz amaituteko LABen ekimen ibiltaria Arratian**Erredakzioa**

LAB sindikatuak, lan-baldintza eta bizimodu duinak izateko eskubi-dea aldarrikatzeko, herriz herriko ekimena abiatu eban urrietan, abenduaren 6ra arte luzatuko dana. Arratian, Ekimen ibiltaria abenduaren 4an izango da.

Goizeko 10:00etan, Cementos Lemona enpresa aurrean konzentrazioa egin eta kotxe karabana pasauko da Arratiako zenbait industriagunetatik, Tecnichapa enpresearen aurrean amaituteko. Arrastian, 19:00etan, Igorreko Kultur Etxean, prekarietateagaz amaituteko dagozan alternatiben gaineko berbaldia egongo da.

Igitie alkarteko Sonia Ingunzak

eta LABeko industria arduraduna dan Zorion Ortigosak emongo dabe berbaldia zeintzuk diran prekarietateagaz amaituteko alternatibak azalduz. Lan eta bizimodu



duina izateko, Aldi Baterako Lane-ko Enpresak (ABLE), ordu estrak eta azpikontratak kentzea gura dau LABek. "Aldi baterako enpresak XXI. mendeko morroitzia dira. Gure alternatibea: kontratazino barrien kudeaketa publikoa". Ordu estren alternatiba moduan, lanpostuak sortu eta lana banandutea proposatzen dabe; eta azpikontratak "langilegoa zatitu eta lan baldintzak kaxkartzen" dituenek, kontratazino zuzena lan baldintza bardi-netan eskatzen dau sindikatuak.

ZEANURI

Herritarren ekarpenak jasoteko batzarrak antolatu ditu EH Bilduk**Erredakzioa**

Zeanuriztarri herriko diruen barri jakitera emon eta zelan kudeatu ebazteko, batzar bi deitu ebazan EH Bilduk zemendiaren 27an eta 28an, eta beste bi dagoz aurreikusita abenduaren 6 eta 7rako. Lehenengoa, hilaren 6koa, Kultur Etxean izango da; hurrengo eguneko, Alzustako txokoan. Batzarrok iluntzeko zazpiretan izango dira. Batzar honek, herritarren eretxiak eta eskaerak jaso gura dauz EH Bilduk 2018ko aurrekontuetan sartu ahal izateko.

ZEANURI

Jaiak Asterrian**Erredakzioa**

Herri kirolak hartuko dabe protagonismo nagusia Asterriko sanandresetan. Ospakizunak San Andres egunean hasi ziran ermitan mezea eta ondoren txokolate janagaz, eta hurrengo astegoienean zehar, abenduak 2 eta 3, luzatuko dira. Jana eta musikeaz gainera, herri kirolakaz disfrutau ahal izango da zapatuan. Holan, arrastiko seiretatik aurrera, Irati Astondoak eta Julen Etxebarriak trontza erakustaldia egingo dabe. Baita Mikel Etxebarriak ardi moztailleak, Beñat Mendieta azkolariak eta Harriti giza proba taldeak be.

Abenduak 2, zapatua

12:00etan, mezea eta ondoren barauskarria.

18:00etan, herri kirolak.

20:30ean, odoloste jana auzoko eta inguratzen diran guztientzat. Ondoren gau jantzaldia Adolfo eta Unai taldeagaz.

Abenduak 3, domekea

12:30ean, pintxo-potea trikitixea eta txistuagaz. Ondoren, zozketea eta jaien amaiera.

ARRATIA

Aisialdian euskeraz egiteko aukerea eskeintzen jarraituten dau Berbalagun proiektuak**Erredakzioa**

Lemoa, Areatza eta Arteako Udaletan, AEK-gaz batera martxan ipinitako Berbalagun egitasmoak aurrera darrai. Proiektuaren helburua, euskera praktikau gura dauan jentea, normalean euskeraz egiten dabenakaz alkartzea da. Hizkuntza ohiturak aldatzeko tresna eraginkorra da AEK-koen eretxian.

Astean behin eta ordubetez, gixienez, hiruzpalau laguneko tal-

deak biltzean dira eta gura daben gaien gainean egiten dabe berba. Gainera, herriko, eskualdeko zein beste hainbat lekutako euskaldunakaz alkartzeko aukerea eskeintzen dau Berbalagunek, egiten diran urtekerak, ikastaro, tailer, bazkari eta beste ekintza askotan. Holan, euskerazko hartu-emon sarea be handitu egiten da.

Parte hartzeako

Berbalagun 16 urtetik gorako personentzat da eta bete behar dan baldintza bakarria euskeraz berba egin gura izatea da. Berbalagun programak euskeraz berba egin gura dabenak ipinten ditu kontaktuan eta eurak ebazten dabe non, noz eta zertarako alkartuko diran.

Izena emon daiteke Arratiako AEKn, Areatza, Artea eta Lemoako udaletxeetan eta hurrengo telefono zenbaki eta helbide elektronikoan: 662 199 033 telefonoan eta arratia_berba@aek.eus helbidean.

ARRATIA

Lemoako Planto! lanak irabazi dau Arratiako Beldur Barik 2017**Erredakzioa**

Arratiako zazpi lan aurkeztu dira aurtengo Beldur Barik ikus-entzunezko lehiaketara. Danak 12 eta 17 urte bitarteko kategorian. Arratia mailako saria, Sara Ojanguren, Haizea Elorza, Goizane Ahedo, Unai Sebastian eta June Bate Lemoakoen *Planto!* izeneko lanak irabazi eban.

Areatzak, Bediak eta Lemoak lan bana aurkeztu dabe eta Dimak eta Igorrek bina. Sari banaketa ekitaldia zemendiaren 24an izan zan Igorreko Lasarte Aretoan. Irabazleak, 300 euroko saria jaso eben Naiara Zurinaga, Igorreko zinegotziaren eskutik.

Arratia mailako lehiaketaz gainera, lanak lehiaketa orokorrera

be aurkeztu dira. Lehiaketa orokorreko sari banaketea abenduaren 2an izango da Eibarren.

Beldur Barik jarkerea

Beldur Barik jarkerea kultura matxista eta indarkeria sexistearen adierazpenak eraldatzeko konpromiso personal zein kolektiboa adierazten dabezan jarkerak dira. Hori egin dabe Areatzako gazteak *Komuneko zuloatik* bideoagaz; Bediakoak, *Poztasun ximaurrak* lanagaz; Dimakoak, *Matxismoaren indarra amatau* eta *Beldur Barik salatu* lanakaz; Igorrekoak, *Matxtoak uretara* eta *Lore beltzak* izenekoakaz eta Lemoakoak *Planto!* ikus-entzunezkoagaz.



BEDIA

Bediako umeak altxorraren bila**Erredakzioa**

Arratiako Gazte Pastoralzaren eskutik, 9 urtetik gorako umeak Altxorraren bila jolasean ibiltzeko aukerea izango dabe abenduaren 2an Bediako plazan, arrastiko 16:30ean hasi, eta 19:00ak ingurura arte. Bedia eta Igorreko 9 gazteko osotutako talde batek antolatu dauz altxorra bilatzeko frogak eta pistak. Jolasaren helburuak, gazteak euren artean ezetutea, talde lanean jardutea eta herrian zehar ibiltzea dira.

Altxorraren bila jolasa antolatu daben aurreko urteetan, "parrokietan dagoan gazte kopurua kontuan izanda, partaidetzea nabarmena" izan dala dinoe Pastoralzatik. Bilatu beharreko altxorra sorpresa izaten da beti.

Beer & Edariak s.l.
HEINEKEN SOLARES
Pelig. Mendizola, s/n. 48530 LEMOIA, Biskaiak
Tel: 609 480 839 / fax: 609 206 717

BIZARGINAK
Ulea era klasiko eta modernoan ebazten dogu. Bisarra egin eta bizkunduten dogu.
Tel: 94 607 78 33
Lehendakari Agirre 9, behea IGORRE

Kili-Kili
Amigo eta Purrifultano
Lehendakari Agirre 10 - IGORRE (Biskaiak)
Tel: 94 672 43 81

Zugaitik BEGITUten dogu
A.P.I. 495
www.inmobiliarialarrea.com
Lehendakari Agirre, 8 behea
48140 Igorre
INMOBILIARIA
Tfnoa: 94 631 80 04

ZEANURI

Pedro San Millan milizianoa etxera itzuli da

Laurogei urte desagertuta emon ostean Euzko Gudarosteko milizianoa zan Pedro San Millan Beitiaren gorpuzkinak etxera itzuli dira.



Altungana mendian batutako batzuk.

Alvaro Rabelli

Joan dan zemendiaren 18an Zeanuriko Altungana mendian Pedro San Millan eta beste lau gudari gehiago egozan hilobia zabaldu zan. Holan, euren gorpuzkinak eta gerrako hainbat aztarna jaso ahal izan ziran. Egun horretan, goizeko hamaikak aldean, jentetzea batu zan Barazarretik gora dagoan Altungana mendia inguruan. Besteak beste, Aranzadi eta Euskal Prospekzioak alkarteetako kideak, EHU-ko ikasleak, kazetariak, Pedro San Millanen senideak, Eusko Jauriaritzako ordezkariak eta Zeanuriko alkatea, zinegotziak eta auzokideak bertaratu ziran.

Hilobia bertan egon eitekelako

lehenengo arrastoa Euskal Prospekzioak alkarteko kideak topau eben urri lehenengoaren 15ean. Orduan Zumeltza eta Barazar mendateen artean zabaltzen dan fronte-lerroko lubaki sistema zaharrean arakatuz Gerra Zibilaren sasoioko hainbat material topau ebezan: kaskoak, balazorroak, munizinoak, platerak... Bai eta gudari baten identifikazio plakea be, 21967 zenbakiagaz. Zenbaki horri esker jakin zan plakea Pedro San Millan Beitia gudariari egokia, eta bera gerrako desagertuen zerrendan egonda, hilobia inguru horretan bertan egon eitekela. Hori da Aranzadiko teknikariak behala egiaztatu ebena, Pedoren gorpua hil zan lubakian bertan lur-

peratu eben, baina ez bakarrik, hasieran uste zan moduan, bertan beste lau milizianoen gorpuzkinak agertu ziralako. Oindino beste miliziano horreek identifikatu barik segiduten dabe. Pedro San Millan hil zan egunean konpainia bereko beste hiru burkide gehiago desagertutak emon ebezan.

San Millan elantxobeztarra zan jaiotzez, baina Bilbon bizi ei zan. Perezagua batailoi komunistaen milizianoa zan, Eusko Gudarostean 10 zenbakia eroan bataloikoa, hain zuzen. Aranzadiko kidea dan Kepa Ganuzak testuinguru historikoaren xehetasunak eskeini zituan. Bere esanetan 1937ko martiaren 20an, frankistak ofensibara jo ebenean, Perezagua batailoia Altunaga mendiko posizinoan egoan. Matxino faxistak artilleriaz eta gerra-hegazkinen laguntzaz ha posizinoa atoa jota txikitu eben. Beraz, baleiteke San Millan egun hareetako erasoaldietan hil izana.

Bestalde, gorpuzkinak lurpetik aterateko beharrak Aranzadiko kidea dan Paco Etxeberria antropologo-forense ezagunak zuzendu zituan. Ez eban aukerea galdu bertaratu ziran autoridadeen aurrean gerra sasoioko desagertuak topetako Aranzaditik egiten daben behar handia bultzatzen segiduteko, ez eta laguntzaile egozan EHU-ko ikasleai eskolea emoteko be.

Unerik hunkigarriena Pedro San Millanen senideak berbea hartu ebenean ailegau zan. Ilobak eskerrak emon zituan familiaren izenean, hainbeste urte pasata Pedro osabea familiara itzultzearen. Ondoren Jon Hernadezek, Podemos-Ahal Dugu alderdiko kideak, eta Aintzane Ezenarro, Gogora Institutuaren izenean, familia eta biktimen duintasunaren alde egindako beharra goraiatu eta eskertu eben komunikabideen aurrean.

eta holan hilero" azaldu deusie BEGITURI plataformatik.

Materiala portu inguruko migratzaileentzat

OEEK, bizimodu hobe baten bila etorrita, Bilboko portuaren ondoan dagozan personak ondo sentidu arazoteko konpromisoa hartu dau. Asteotan, Zeanurin, Diman, eta Arratiako hainbat herritan, eta abenduaren 1ean Areatzan, kanpindendak, lozakuak, esterillak, oinetakoak, galtzerdiak eta abar batu ditue. Gainera, txandaka ibiltzen dira Santurtzin eta Zierbenan akanpauta dagozan migratzailei bazkari eta afari beroak prestatzen. "Ezin dogu onartu Bilboko portuan personentzako hesi bat egitea eta armen salerosketeari ateak zabaltzea" dinoe.

ARRATIA

Erronkai alkarregaz aurre egiteko Arratiako Enpresa Foroa sortu da

Errota Fundazioaren ekimenez, Arratiako Enpresa Foroa sortu da. Zemendian izan eban bere lehenengo saioa.

Erredakzioa

Bertan, hainbat enpresak hartu eben parte, Batzek, Ilunbek, Ormazabalek, WalterPack-ek, Ikerrek-ek, Arbeguik, Morgak, Comecaranek, QuickRent-ek, Zulaibar Arratiako Lanbide Ikastegiak eta Errota Fundazioak berak hain zuzen be. Aina Basurko BEAZeko zuzendari nagusia be egon zan Foroaren lehenengo saioan.

Foroaren helburua, eskualdearen garapen sozioekonomikoaren alde lan egitea da, eta "alkarren arteko hartu emonak jasoteko topaleku bat izan gura dau, etorkizuneko erronkai alkarregaz aurre egiteko, alkarlanean" azaldu deusie BEGITURI Iratxe Goikoetxea Errota Fundazioaren koordinatzaileak.

Administrazioaren laguntzea

Errota Fundazioak enpresen aurrean bere aurkezpena egin ondoren, BEAZeko zuzendari nagusiak bere sailak enpresentzako eskertzen dituan zerbitzuak azaldu ebezan. Bizkaiko Foru Aldundiko

Ekonomia Sustatzeko Sailari atxikita dagoan foru soziedade da BEAZ, eta ekonomia-jardueraren hazkundean lanpostuen sorkuntzan lagundutea dauka helburu. Basurkok, Errota Fundazioaren sorrera garrantzitsutak jo eban, bere bitartez eskualdeko enpresak dituen beharrak bideratu daitekezalako, eta administrazioak eskeintzen dituan laguntza eta programak enpresetara eta Arratiako udaletara heltzeako bidea dalako. Enpresetako ordezkariak identifikatu ebezan euren premiak eta preminok asetzeko ze ekintza egin daitekezan Errota Fundazioaren bitartez.

Lehenengo saio honetan parte hartu eben baino enpresa gehiagok erakutsi dabe Foroaren gaineko interesa eta danai bialduko jakie zemendiko saioan landutakoaren txostena. Hurrengo saioa udabarrirako aurreikusten da. Errota Fundazioagaz hartu emonetan ipinteko, info@errota.eus-era idatzi edo 688 854 543 telefonora deitu daiteke.



Arratiako Enpresa Foroaren lehenengo saioa.

ARRATIA

OEE Legebiltzarrean egon da armen salerosketea gelditzeko eskatuten

Erredakzioa

Zemendiaren 23an, Ongi Etorri Errefuxiatuak (OEE) plataformea Eusko Legebiltzarrean egon zan Bilboko portutik Saudi Arabiara armen salerosketea gelditzeko eskatuten eta Saudi Arabiagaz dagoan negozioa eta Yemenen egiten diran Giza Eskubideen urraketea salatuteko. Yemengo "momentu honetan dagoan munduko krisi humanitario handienetarikoa da"

Edorta Alonso Arratiako OEEko kidearen esanetan.

Espaniako armen salmenten %15 EAEkoa dala eta Euskadi lider dala estaduan armen salmentan, salatu dau OEEK. "Baina momentu honetan Bilboko portuan armentzat alfonbra gorria jarri eta migratzaileentzat trabak baino ez dira ipinten. Zemendiaren 29tik aurrera Saudi Arabiako itsasontzi bat armak kargetan dabil Bilboko portuan. Hurrengoak, zezeilaren 4an kargauko ditu,

94 631 90 08

M. Jose zure arropa GALANTA

Agirre
Lehendakaria 23
48140 Igorre
galanta@hotmail.es

www.facecook.com/galanta.lenceria

ABENDUAK 3. EUSKEREAREN NAZINOARTEKO EGUNA

Euskal Herrian eta Eskolherrian... euskeraz!

Abenduaren 3an Euskerearen Nazinoarteko Eguna da eta urtero lez, Arratiak jaigiroan ospatu eta aldarrikatuko dau euskerearen erabilera. Arratia mailan ikas komunitateak sendo landu dau eguna. Arratiako marka izan gura dauan *Markak* izeneko bideoa aurkeztuko da egunotan. Jendartearen euskereagazko konpromisoa bultzatzeko ekitaldiak egingo dira herrietan eta aisialdiari lotutako jardura moltsoa antolatu ditue udalak eta alkarteak.



Markak filmaren irudi bat.

Erredakzioa

Arratia mailan, Normalkuntza Proiektuak, beste gauza batzuen artean, agenda bat ateraten dau urtean-urtean. Aurtengoak "Zantzoka zein marmarka, hamar marka" titulupean, euskerearen hautua egin daben hamar arratiar izan ditu berbagai, eta eurak agertzen diran bideo bat be egin dau, *Markak* izeneko. Bideoa Diman aurkeztuko da abenduaren 2an, Igorren 3an, eta beste herrietan be aurkeztuteko asmoa dago baina egunak zehaztu barik egozan BEGITU hau zarratute-rakoan. Bideoa, "promozinorako izango da eta Arratia mailan erabiliko da eskoletan, kultur etxeetan..." dino Ibon Iza *Markak* filmaren zuzendariak.

Ekitaldiak Diman eta Igorren

Hiru egunetako aldarrikapen jai egitaraua prestatu dabe Diman, baina ekitaldi nagusia zapatuan izango da Euskerearen Egunearen bezperan. Umeen koreografia bategaz hasiko da ekitaldia eta alkatearen agurraren ostean, Eskolherrian Euskeraz izeneko Hizkuntza Proiektua garatzeko gida praktikoa aurkeztuko dabe. Ibon Izak jardungo dau aurkezle lanetan eta Bihotz Gorospek "Eskolherrian euskeraz" abestia kantatuko dau. Amaituteko, Alkarregaz alkarteak antolatutako kopaua dastatu ahal izango da. *Markak* dokumentalaren aurkezpena be egingo dabe ekitaldian. Igorren "Urten armariotik, baietz

23 egun euskeraz" ekimenaren amaiera ekitaldia antolatu dabe. Lasarte Aretoan izango da, Euskerearen Egunean bertan, eguerdiko 12:00etan, eta Oihan Vegak jardungo dau aurkezle lanetan. Ekitaldian, bideoak, musikea eta sorpresa asko egongo dirala azaldu deutso BEGITURI Irati Barrenetxea Igorreko Euskera Teknikariak.

"Urten armariotik" kanpaineagaz, hizkuntza ohituretan eragin gura izan da. Euskerearen armariotik urtetea, euskera gehiago erabiltea da, eta horretarako hizkuntza ohitura barriak eskuratu behar dira. Horixe izan da, Aho-bizi, Belarriprest eta Barrebiziren eginkizuna, egunerokotasunean euskeraz egitera bultzatzea. Erronkeari erantzun deusien igorretarrak euskerearen alde egin dabe 23 egunez, zemendiaren 10etik abenduaren 3ra arte. Gauza bat ohitura bihurtzeko 21 egun behar ei dira eta ohitura hori ez eukien batzuk euskeraz egiteko ohitura hartu izana ospatuko dabe Igorren.

Euskera Plana Lemoan eta 400 km. egiteko erronka Zeberion

Lemoako Udalaren Euskera Zerbitzuak, abenduaren 2rako "Adiuntza Eguna" izenagaz, 2018-2021 Euskera Planaren helburu eta egitekoak diseinetako topaketea antolatu dau. "Garrantzi berezia emon deusagu lemoaztar guztion parte harteari. Izan be, funtsezkoa ikusten dogu herritar guztien eretxiak, kezak, nahiak eta proposamenak ezetutea,

hori guztia oso baliagarria izango dalakoan Euskera Plan barria prestatzeko" dinoe Euskera Zerbitzutiak. Hamasei urtetik gorako edonok parte hartu leike topaketan. Abenduaren 2an, 10:30etik 13:00etara izango da jubiladuen etxeko goiko aretoan.

Zeberion barriz, herriko alkarteak enbidoa bota deutsee herri-tarrai: lau orduko denpora mugan eta ibilbide bateri jarraituz, euskerearen alde, 400 km. egitea hain zuzen be. Euskerearen Egunean bertan, abenduaren 3an, goizeko 11:00etatik 15:00ak arte izango da erronka. Ibilbidea plazan hasi eta amaituko da. Ibiltari bako-txari, hiru kilometrotako bueltea egiten dauan bako-txean, puxika bat entregauko jako eta plazan lotuko da. 15:00etan, erronka lortu dan konprobau, manifestua irakurri eta globoak soltauko dira.

Kultura eta aisialdia euskeraz

Euskerearen inguruko ospakizunak, barikuan hasiko dira herri askotan eta zapatu eta domekan be aisialdiari lotutako ekintzak egingo dira. Abenduaren 1ean, barikuan, 20:30ean, *Putinen guardasola* ikuskizuna ekarriko dau Kultur Gunera Arantzazuk, eta domekan, umeen jolasak egingo dira frontoian 11:00etatik 14:00etara. Arrastian, 17:00etan, murala margoituko dabe plazan eta 18:00etan txokolata egingo da Herriko Tabernan.

Billaroztarrak herri irakurketea egingo dabe Euskerearen Egunean, eta bitartean tailerak egingo dira plazan. Hau,



11:30etik 13:30era izango da. Ostean bertsolarien txandea izango da eta "Euskal Herrian euskeraz" kantuen koreografia grabatuko dabe. Herri irakurketearen aurretik, 11:00etan, kalejire egingo da txistulariakaz. Aurreko barikuan, abenduaren 1ean, Ana Apika ipuin kontalariak ipuin sorta bat kontatuko dau arrastiko 18:00etan eta gero Guraso alkarteak txokolata bananduko dau plazan.

Artean, Euskerearen Egunean poteo-kalejire egingo da albokariakaz.

Gaztetxoek disfrutetako hainbat ekintza prestatu dauz Bediak. Nahiz eta abenduaren 1ean ludotekan euskerearen inguruko tailerak egon, 4an izango da ospakizun nagusia. Izan be, astelehen horretan, Euskerearen aldeko Leloen Lehiaketako eta Gabon Txartelen Lehiaketako sari banaketea egingo da liburutegian eta bertan, Goazenleko kide bi egingo dira autografoak sinatzen eta hurreratutakoak erretratuak ateraten Photocall-ean. Eta hilaren 15era arte, lehiaketan parte hartu daben marrazkien erakusketea egingo da liburutegian.

Diman, euskerearen aldeko ekintzak abenduaren 1ean hasiko dira. 17:45ean, Gotzon Aurrekoetxea EHUKo Filologian doktoreak, hitanoaren gaineko berbaldia emongo dau Abaro aretoan. Ordu bete geroago, zumba saioa egingo da frontoi txikian eta 20:00etan, kantu-triki poteoa, Zamakola korua, Kantu bat gara eta Jon Loiolaren laguntzeagaz. Andraize alkarteak egindako taloak be dastatu ahal izango dira.

Zapatu osoa be hartuko

dau euskerearen jaiak Diman. 10:30ean, Dimesten hormarudia ipiniko dabe eskolan eta eguerdiko 12:00etan hasiko da ekitaldi nagusia eta ostean trikitaliak, bertso-eskupeleta partidua eta Jantzari finak jantza taldearen emonaldiak ikusi eta Guraso alkarteak erretako gaztaina-goringoak dastatu ahal izango dira.

Domekan barriz, jantzak eta herri kirolak hartuko dabe Dimako frontoia. 11:00etan, umeentzako herri kirolak; eguerdian, mezua eta Gaztebarri jantza taldearen emonaldia eta ostean, 12:30ean, Euskal Herriko Lasto Botatze Txapelketea jokatu da. Jaiari amaiera trikitaliak emongo deusie 14:00etan.

Lemoan zapatuan, hainbat ekintza egingo dira goizean zehar eskolan: abestiak megafoniatik, Harrotxuren bisitaldia, unidade didaktikoaren lanketea, jolasak patioan, euskereagazko konpromisoa sinatzeko murala, euskal jantzak, sari banaketea eta kantutak. Eta zazpiretatik aurrera, kale ikuskizuna egingo da, Atxetatik abiatuta.

Euskerearen Eguneko aurreko astean, Zeanuriko denda, taberna eta herriko beste leku batzuetan, esaera zaharrak ipiniko ditue jentek erabili dagiezan. Euskerearen Eguna ospatuteko, barikuan, hilak 1, arrastiko seiretatik aurrera, talo tailerra, talo jana eta euskerazko kantu poteoa egingo da herrietan zehar.

Zeberion, 400 km. egiteko erronkaz gainera, umeentzako jolasak, jantzak, trikitaliak eta abar egingo dira Kaltzada Erreala "kaltzada koloretzu, abeslari eta euskaldun" bihurtutako.

BATZek Ohorezko Lauaxeta Saria jaso dau euskal kulturearen alde egiten dauan beharragaitik

Unai Rementeria, Bizkaiko ahaldun nagusiak eta Lorea Bilbao, Euskara eta Kulturako foru diputaduak, Lauaxeta Sariak banandu ebezan zemendiaren 28an, foru jauregian ospatu zan ekitaldian.

Saria horren bidez, modu publikoan aintzat hartu gura izaten dira euskera eta euskal kultura sustatu, hedatu eta normalizetako lanetan egindako ahaleginakaitik nabarmendu diran persona, talde eta erakundeak. Aurten, Ohorezko Lauaxeta Saria Bizkaiko lan munduan euskerearen erabilera areagotzeari ekin deusien BATZ, Cikautxo, Maier, Eika eta ITP enpresak jaso dabe.

Bizkaiko Foru Aldundiak oin dala hamahiru urte sortu ebazan Lauaxeta Sariak, Esteban Urkiaga Lauaxeta idazle euskaldunaren figura aldarrikatzeko eta euskal kulturearen alde egiten dabenak saritzeko.



Areatzako Bainuetxea



www.hotelbalnearioareatza.com

Oparia topetan Olentzero egunerako?

Urte honetan, relax-a Areatzan

Masajeak, zirkuitu termalak,
bonu gastronomikoak, hidromasaje bikotxak,
estalkiak, estetikea, fisioterapia...

28€-tik aurrera

info@hotelbalnearioareatza.com - 946572705

MENDIA

San Kristobaleko Mendi Martxearen XV. edizinoa abenduaren 2an

Erredakzioa

Igorreko San Kristobaleko XV. Mendi Martxea abenduaren 2rako antolatu dau Intxaurbizkar Kultur Elkarteak. Ibilbide bi dagoz aukeran, luzeak 20,5 km. ditu eta laburrak 17 km. Urtekerea San Kristobaleko plazatik izango da 08:30ean. Martxea amaitutakoan partaideentzako oparia eta kopaua egongo da.

Mendi Martxearen ostean babajana antolatu dabe. Martxea bakarrik egin gura dabenak 5 euro pagau behar dabez eta martxea eta babajana egin gura dabenak 10 euro. Izen emotea zementiarekin 30ean zarratu zan eta martxa egunean bankuko agiriak aurkeztu behar dira 08:00retan, plazan, martxan parte hartu ahal izateko.



MENDIA



Onditz Iturbe podiumean.

Onditz Iturbe igorretarrak irabazi eban Lemoatx Trail laburra andrazkoetan

Erredakzioa

Lemoatx Trail lasterketa luzea, 24,3 km.koa, Julen Larruzea Larabetzukoak eta Izaskun Zubizarreta gipuzkoarrak irabazi eban. Laburra barriz, 12,2 km.koa, Onditz Iturbe Igorreko atletak andrazkoetan, eta Lander Fruniz Mungiarrek gizonezkoetan.

Lasterketa luzean, zeberioztar batek, Joseba Nuñezek, egin eban bosgarren gizonezkoetan. Eta laburrean be egon zan arratiarik lehenengo bosten artean. Izan be, andrazkoetan, Onditz Iturbek irabazteaz gainera, bosgarren, Tamara Txikon lemoztarrak

egin eban, eta gizonezkoetan, Jokin Zabala bediazarrak egin eban hirugarren.

Aramotz eta Lemoatxetik zehar

Zemendiaren 18an izan zan proba. Guztira 500 partaide inguru izan ziran, gehienak mendi martxetan. Lasterketa luzean 80 kirolarik hartu eban parte eta laburrean 77k. "Partaideai asko gustau jakien ibilbide barria. Hau, Aramotz mendilerrotik eta Lemoatxeko lubakietatik pasetan da eta hurrengo urteetan be ibilbidea mantenduteko asmoa daukagu" dinoe antolakuntzatik.

LASTO BOTATZE

Euskal Herriko Lasto Botatze Txapelketea abenduaren 3an Diman

Erredakzioa

Dimako Udalak antolatuta, abenduaren 3an, 12:30ean, jokatu da Diman Euskal Herriko Lasto Botatze Txapelketea frontoian. Bederatzi kirolari neurtuko dira, tartean Jose Martin Bustinza "Tubi", txapelduna, Gipuzkoako ordezkaria.

Bizkaitik, Mikel Agirre eta Beñat Obieta izango dira txapelketan. Arabatik, Juan Carlos Lopez eta Sergio Aldasoro; Gipuzkoatik, Jose Martin Bustinza "Tubi", Patxi Ituarte eta Ekaitz Salcedo eta Lapurditik, Andde Arbenoitz eta Anthony Govaert.

Tubik txapela eta marka

Tubi da faboritua. Izan be, orain



arte 11 txapelketa ofizial egin dira eta danak irabazi ditu berak. Oingo hau irabazten badau, Euskal Herriko Lasto Botatze 12. txapela

eskuratuko dau.

Markea be Tubik berak ezarritakoa da 6 metro eta 70 zentimetrotakoa.

ESKALADEA

Itziar Zabala eskaltzaile dimoztarrak irabazi dau Espainiako Kopea

Erredakzioa

Zemendiaren 25eko, Bartzelonako proban ukondoa atera jakon arren, bigarren egin eta Kopako irabazlea izan da Itziar Zabala 345 puntugaz. Kataluniako Federazinoko Mari Carmen Alarcon (300 puntu) eta Kanarietako Federazinoko Maja Jonjic (233) izan ziran bigarrena eta hirugarrena, hurrengoak hurrengo.

Jokatutako lau probetako bi irabazi eban dimoztarrak, Bilbon eta Plasencian jokatutakoak, hain zuzen be. Lehenengo proban Madrilen hirugarren egin eban,

eta atzenengoan, Bartzelonan bigarren, proba amaitu ezin izan baeban be. "Lehenengo blokea lehenengo saikeran atera neban eta horrek salbau ninduan" dino txapeldunak.

Espainia mailako titulu bi

Estadu mailan eskaltzailerik onenetakoa dala argi itxi dau dimoztarrak denporaldi honetako titulurik inportanteenak irabazita; Espainiako Bulder Txapelketea eta Espainiako Bloke Kopa hain zuzen be. Lesinoan denporaldiaren amaieran izan da eta horrek ez deutso galarazo tituluok eskuratzea.



Itziar Zabala.

PELOTEA

Munduko Txapelketea inflexino puntua

Erredakzioa

Euskal Selekzinoko andrazkoak txapeldunak izan dira CIJBK Kolonbian antolatutako IX. Munduko Pelota Txapelketan. Arratia Futbol Taldeko jokalarizandako Patricia Espinar Usansolokoak, 11 partidu jokatu, eta danak irabazi eban. Amaia Araiztegik bi baino ez eban galdu. Arratiako ordezkartzea, Lemoako Aitor Erauzkin selekzinoko arduradunak eta Dimako Ekhi Ziarrusta pelotariak osotu eban.

Ziarrustak hiru modalidadetan jokatu eban: Llargues, Internazionala eta Chaza. Internazionalan tantu batera geratu zan finalerdietan sartzeako eta orokorrean "oso itxura ona" emon ebala dino Erauzkinek. Modalidade honeetan, pelotariak aurrez aurre jarten dira eta tenisaren antzera jokatuten da. Euskal Selekzinoko pelotarien mailagaz "jentea harrituta geratu zan".

One Wall modalidadean barriz, espektatiba handiakaz joan zan selekzinoa eta Espinar eta Araiztegik One Wall-eko Munduko txapela jantzi dabe. "Goraipatzekoa da nesken lana eta nesken emoitak. Inflexino puntu bat da erakusten dauana neskek be lekua daukiela frontoian. Espero dogu andran presentziak gora egitea esponentzialki" dino selekzinoko arduradunak.

ZIKLO-KROSA

Abenduaren 10ean izango da Igorreko Ziklo-krosa

Igorreko Ziklo-krosaren XLI. edizioa abenduaren 10ean jokatu da. Igazko moduan, nazinoarteko lasterketea izateaz gainera, Euskadi Basque Country Challengeko proba be izango da. Atzenengoa, hain zuzen be.



Sara Casasola.



Patrick Van Leeuwen.

UCI EUSKADI BASQUE COUNTRY IGORRE
ABENDUAK 10 2017 **XLI. ZIKLOKROSS - IGORRE**

09:30 KADETEAK (Mutil eta Neskak) CADETES (Masculino y Femenino)
10:15 GAZTEAK JUNIOR
11:00 SARI BANAKETA KADETEAK ETA GAZTEAK ENTREGA DE PREMIOS CADETES Y JUNIOR
11:30 EMAKUMEAK: GAZTEAK - SUB 23 - ELITE FEMINAS: JUNIOR - SUB23 - ELITE
12:30 GIZONAK: ELITE - SUB 23 HOMBRES: ELITE - SUB 23
13:40 SARI BANAKETA ENTREGA DE PREMIOS

Kartela.

Erredakzioa

Goizeko 09:30ean hasiko dira Kadeteak eta 11:30ean eta 12:30ean izango dira Elite mailako lasterketak, andrazkoetan eta gizonezkoetan, hurrengo hurrengo. Aurten, Masterrak ez dabe parte hartuko Igorreko Ziklo-krosan.

Arratiako Ziklista Elkarteak antolatutako lasterketa honetan, nazinoarteko ziklistarik onenak neurtuko dira, zaleen gozamenarako. Igorrera etortzekoak dira, beste batzuen artean, Patrick Van Leeuwen holandarra, Marco Ponta italiarra eta Antonin Maricaille

frantziarra gizonezko Elite mailan, eta Elle Anderson estadubatuarra, Joyce Vanderbeken belgikarra eta Sara Casasola italiarra andrazkoetan. Arratiako ordezkariak, gazteen artean dago. Holan, Kadeteetan, Eneko Erdoiza, Mikel Alonso, Ibai Gabantxo eta Aritz Artetxe izango dira eta Gazteetan Joseba Torres, Illart Fernandez, Oier Garai eta Iker Mancebo.

Ordutegia

Kadeteak, neskek eta mutilak, 09:30ean emongo deusie hasikerea aurten Igorreko Ziklo-krosari. 10:15ean, Gazte mai-

lako mutilen txandea izango da. 11:00etan, maila horreetako sari banaketea izango da.

Ondoren, Elite mailako lasterketak hasiko dira. Andrazkoak neurtuko dira lehenengotik, 11:30ean. Gazteak, 23 urtez azpikoak eta Elite mailako andrazkoak ekingo deusie zirkuituari. Lasterketa hau nazinoarteko mailakoa da eta ETBK emongo dau zuzenean. Ondoren, 12:30ean hasiko da gizonezkoen 23 urtez azpiko eta Elite mailako lasterketa. Lasterketa nagusietako sari banaketea 13:40ean izango da.

ETBK elite mailako lasterketak emongo dauz. Kadete eta Gazte mailako lasterketak ostera, streaming bidez ikusteko aukerea egongo da.

Udalaren laguntzea

Juan Mari Zurinaga Arratiako Ziklista Elkartearen presidentearen esanetan, Igorreko Ziklo-krosak 40.000 euro inguruko aurrekontua izaten dau eta AZEK arazoak

eukiten dauz diru hori batzeako. "Urtean-urtean, txarrago ibiltzen gara. Eskerrak Igorreko Udalak la-

gunduten dauala asko eta ondo. Hareri esker egiten da karrera" dino Zurinagak.

IGORREKO KOMERTZIOEN GABONETAKO PROGRAMAZIOA

ABENDUAREN 15ean
GABONETAKO ARBOLA PIZTEA
Cava eta pastak dohainik

ABENDUAREN 26an
"ZEANIKO" antzerki taldea

IGORREKO KULTUR ETXEAN
Sarrera: Igorreko edozein komertzioetako erosketa-tiketa

ZOZKETA: GABONETAKO OTZARA

ZORIONAK ETA URTE BARRI ON!!

#igorrenerosi

UBITE
ERAIKUNTZA MATERIALAK

Tel.: 94 631 60 65 - 615 75 87 92
e-mail: ubitemat@ubitesl.com
Igorreko Industrialdea, Pab. 11F - 1A
48140 IGORRE (Bizkaia)

ERA GUZTIETAKO MATERIALAK ERAIKUNTZARAKO

LUR BEGETALA KARE BIZIA

ESTELEHENETIK BARRIKUBA
07:45-12:45
14:00-18:30
ZKPATUETAN
08:30-12:30

SOKA
LAN BERTIKALAK

Gabon zoriontsuak opa deusueguz arratier guztioi

T.: 946 036 069
soka@sokavertikal.com
sokavertikal.com

DOKUMENTALA

Indarkeria matxista
psikologikoaren gaineko
dokumentala Areatzan

Erredakzioa

Zemendiaren 25aren kanpainearen barruan, *El nunca me pegó* dokumentala proiektuak da abenduaren 5ean, 19:00etan, Areatzako udaletxearekin Aretxo Nagusia. Irantzu Varela Faktoria Lilako koordinatzaileak azalduko dau zelan sortu zan dokumental hau egiteko idea eta eztabaidea egongo da ondoren. Hogei minutuko dokumental honetan, hiru andrak bikote heterosexualetan bizi izandako biolentzia psikologikoaren lekukotasuna emoten dabe. Baita zelan gainditu eben azaldu be.



IKUSKIZUNA

Pirritx, Porrotx eta Marimotots
pailazoaren Borobilean
ikuskitzuna Zeanurin

Erredakzioa

Pirritx, Porrotx eta Marimotots pailazoaren azken ikuskizuna ikusteko aukerea egongo da Zeanuriko frontoian, abenduaren 15ean, arrastiko 18:00etan. Sarrerak Zeanuriko udaletxearen egongo dira salgai, hilaren 4an herrikoentzat eta hurrengo egunean Zeanurikoak ez diranentzat.

Pailazoak "borobilean" jarriko dira eta arauen, antolaketearen eta norbere lekua bilatzearen inguruko hausnarketa egingo dabe. Izan be, bizikidetzan sortzean diran arazoak zelan aurre

egin landuten dabe ikuskizunean.

Personaje ezagunak eta barriak egongo dira, baita jantza eta kantu barriak be, ikuskizun "biribilean".



KULTURA ONDASUNA

Eusko Jaurlaritzak kultura
ondasun izentau ditu
Baltzola eta Axlor kobak

Zemendiaren 14ko Gobernu Kontseiluan hartutako akordioa izan zan.



Erredakzioa

Dimako kobak kultura ondasun izentatze horregaz, inguru oso-

rako konserbazino mailako babes-a ezarri dau eta arautu egin da zein baldintzatan egin daitezkan espeleologia eta eskaladea. Neurri horreez ziurtatu gura da babestuta geratuko dala ingurunea, babes-maila jakin batez, eta eskalada edota espeleologia moduko jarduerak, babes horregaz zelan bateratu daitezkan zehaztuten da.

Kultura ondasun hori Baltzola, Axlor eta Baltzola II kobetako interes arkeologikoko aztarnategiak osotuten dabe. Koba bakotxean aztarnategi bat dago

eta lehenengo biak daukie interes handiena. Kontserbazinoko babes-maila izentatzen jakie, Euskal Autonomia Erkidegoko arkeologian adierazgarri garrantzitsua izateagatik eta ingurua hondatuko leukien jarduerak eragoztearren.

Baltzola eta Axlor kobak natura ikuspegitik interes handia daukan eremuan dagoz eta euskal mitologiako kondairak be kokatu izan dira bertan.

Neurriak eskalada eta espeleologiarako

Eremu horretan zein kasutan onartuko diran eskalada eta espeleologia jarduerak zehaztuten da espedituean. Eskaladearen kasuan aitortzen da eskaladarako erreferentzia dala European, baina muga eta kontuz ibilteko neurriak ipinten dira. Espeleologiaren kasuan be muga batzuk ipinten dira eta adierazoten da, berbarako, ezin dala koba barruan lo egin, ezta hormetan edo zoruetan aztarnarik ixten daben argiztapen sistematik erabili be.

DISKOA

Hamelin da MG Bandaren atzen lana

Illart Gumuzio

Abenduan plazaratuko dau MG Bandak *Hamelin*, bere hirugarren lan luzea. Euren aurreko lanetan legez, reggae-a dauka oinarri sei abesti eta dub bersino bat dakarzan diskoak eta 2017ko apirilean grabau zan. Bost abestiren nahasketa eta masterizazioa Axular Arizmendik egin ditu, eta "Trintxeretatik" abestia, Xabier Urrutikoetxea eta Iñigo Olabarrik nahastu dabe modu analogikoan eta Ibon Laruzeak Euridia estudioan masterizau. Diskoaren diseinuaz orde, Tía María enpresea arduratu da.

Abestiak gai ugari ditue hizpide. "Hamelin" abestiak estadiaren hedabideetatik erakusten deuskuen moldeez eta horrek dakarren kultura erailketaz egiten dau berba; "Jango

dok mehe" poderetsuan handigura eta individualismoaz; "Ostondu" fede erlijiosoak eskeintzen dituen esperantza faltsuez; "Vs" terrorismo islamiarraren biktima edo berrero sailkatzeko dagoan ikuspegi desbardinez; "Euskaldunorde" errazakeriaz

eta "Trintxeretatik" kontrakulturako hainbat talderi omenaldia da.

MG Banda

Materia Gris izenagaz jaiotako 2006ean gaur MG Banda dana. Taldeetik partaide ugari pasa diran arren, zazpi dira egungo kideak: Aimar Fernandez "Zoro" (bajua eta abotsa), Ander Gaigorta "Biser" (bateria), Endika Parra (gitarra), Iban Agirre-goikoa (tekladuak), Erika Lique (saxoa eta zeharkako txirulea), Asier Caldas (trontpetea) eta Iñigo Olabarri (soinu teknikaria). Doinu tropikalak egiten dituan talde honen disko-grafia *Arratia bailarako musikea* (EP-2010), *Maketa* (2011), *MG II* (EP-2013), *MG Banda* (2015) eta abenduan argitaratuko dauan *Hamelin* diskoak osotzen dabe.



arratiako instalazioak s.l.
Berokuntza - Iturgintza - Gasa
Aireztatzeko sistemak
Aire zurgatze zentralizatua
Suteak kontrolatzeko zerbitzuak eta mantentze lanak

Igorreko Industrialdea
Fab. D7
Tel. Fax. 94 673 62 76
Tel. 619 736 515
48140 Igorre Bizkaia

Abel Lapatza Iza
Taxi zerbitzua 24 ordu
Dima

946 317 252
608 287 249

www.aitza.com

- Areta gutxiaria
- Laguntza psikologikoa
- Laguntza
- Fisioterapia
- Pikumenstratzea
- Lanera arazak
- eta beste gehiago

J.A. IZQUIERDO
PINTURA LANAK

MOKETA - SINTASOLA - PAPEREA

Elizalde, 33 D - 1ºB - 48140 IGORRE (Bizkaia)
Tel. 94 621 64 62 - 608 854 018

begitu
analia ulkide zuberko

izkaifisios

IGORRE FISIOTERAPIA ZENTROA
Elizalde, 4
48140 Igorre
94 631 35 08
igorre@bizkaifisios.com

ANDRA MARI KLINIKEA
Fontzi Zabala, 1
48960 Galdakao
94 457 23 64
galdakao@bizkaifisios.com

Olaetxe
Graduazinoak
- Ikusmen terapia
- Ikusmen gubitua
- Begiko tentsioa
- Lentillen adaptazioa
- Kiroletarako betaurrekoak

Sabinu Arana 3, 48140 IGORRE (Bizkaia)
94 657 70 03 - olaetxeoptika@hotmail.es

belagorri

mediku naturalista
argaltzeko terapia
kosmetika naturala
elkagai biologikoak
zelakoentzari elkagaiak
estefiziana

Zamakoa, 9 - 48960 Galdakao
94 600 21 12 - 94 600 87 56
L. Agirre, 9 - 48140 Igorre
94 631 14 39

IKASTAROA

Autonomia sexuala bultzatzeko ikastaroa

Erredakzioa

Arratiako Andren Jabekuntza Eskolearen barruan, abenduaren 15 eta 16an, Amaia Urrejola sexologoak, Tupper Sex Feminista izeneko ikastaroa emongo dau Bedian.

Bertan, ikuspegi feministatik, andren trebatze erotikoa, pedagogia sexuala eta jabekuntza sexuala landuko dira. Ikastaroan, historian zehar andrai ukatu, ostendu eta erreprimidu jakien gorputzaren eta sexualitate femeninoaren ezagutzera landuko da, jabekuntza



Amaia Urrejola.

eta autonomia sexuala sustatzeko.

Amaia Urrejola

Amaia Urrejola Muguruza (Eibar, 1986) sexu hezitzaile eta terapeuta da. EHU-n Psikologian lizentziatu zuen 2010ean eta Sexologia masterra egin eban gero. Euskal Herriko Sexu Heziketa Eskolan, EHSHE-n egiten dau behar.

MUSIKEA

Kantu Kolore taldea Igorreko Kultur Etxean

Erredakzioa

Abenduaren 16an, 17:00etan, Kantu Kolore taldeak umeentzako erromeria eskeiniko dau Igorreko Kultur Etxean. Zazpi irakaslek osotuten dabe taldea eta umeak musikeagaz gozatzeko, abestutea eta jantza koreografiadunak ikasi dagiezala da euren helburua.

Taldearen ikuskizunetan, umeari fantasiako mundura bihurtzeko aukera ematen jakin sormena bultzatuz eta jantzearen bidez, motrizitatea, espazioa, gorputz perzeptzioa eta koordinazioa landuz. Estilo askotako kantuak izaten dira, danak euskeraz.



LIBURUA

Rafa Ugalderen *Baltzolako ipuinak* liburua kalean

Ibaizabal argitaletxeak argitaratu dau. Liburuan, mitologia gaia daukien poesiaz betetako 15 ipuin biltzean dira. Liburuaren aurkezpena Diman egin zuten zemendiaren 23an. Bezperan, Rafa Ugaldek Bilbon Blas de Otero poesia saria jaso eban *Hondar aleak* poesia liburuagaitik.

Erredakzioa



egin zuten eskaera, Lydia Zapata arkeologoa zana eta Joxerra Aihartza biologoaren ekimenez. Orduan, Udalak *Baltzola ama lurraren altzoa* liburu tekniko argitaratu eban. Ugalde mitologiaren

Momentu berezian heldu da *Baltzolako ipuinak* liburuaren argitalpena. Izan be, egun batzuk lehenago, zemendiaren 14an, Eusko Jaurlaritzak kultura ondasun izentatu eban Baltzola eta Axlorren ingurua. Aurreko legegintzaldian, Rafa Ugalde Dimako alkate zala



Eukene Herrera, Rafa Ugalde eta Aitzol Atutxa.

gainean hasi zuen hausnartzen, eta hori izan zuen liburu honen hasia.

Liburuaren zati bat dago bananduta. Lehenengoan, "Sorrera" izenekoan, "genesi" modukoa egiten da, "euskaldunon mitologian dana sortu zuen kobetan, eta gure hemengo mitologian Baltzolan" esan eban egileak aurkezpenaren. Munduaren sorrera Baltzolan kokatu dau Ugaldek. Bigarren zatian "Baltzolako seme-alabak" izenekoan, mitologiako pertsonajeak aurkezten ditu 10 ipuin harilkatutakoren bitartez.

Blas de Otero Bilboko poesia saria

Rafa Ugaldek, Bilboko Udalak antolatutako Blas de Otero Poesia Lehiaketan irabazi dau euskerazko modalitatean *Hondar aleak* liburuagaz. Prestijio handiko lehiaketa da eta aurtengo edizioan 510 lan aurkeztu dira, 15 euskeraz. Irabazleak 5.500 euro jasoko dau sarritzat.

DUNBA

Suteak

Zeberioko eskolako 5. eta 6. mailako ikasleak

Zeberioko eskolako 6. eta 5. mailakoak suteen inguruan berba egingo deutesuegu. Aurten Galizian eta Portugalen sute asko egon diralako aukeratu dogu gai hau.

Gehienetan suteak pertsonak sortutakoak dira. Gurata edo gura barik izan daitezke. Gurata diranak honela sortzen dira: Gasoleoz, txiskeroz, gasez, tabakoz eta pospoloz.

Ia beti gurata diranak piromanoak sortzen ditue.

Gura barik diranak holan sortzen dira: Tabakoz (txarto amatauta dagoana edo leihotik botatakoa), legez kanpoko zabor-tegiak (olioz eta beste hondakin

erregaiakaz beteta dagozanak) eta lupa efektua egiten daben kristalak edo botilak.

Suteak baita naturagaz be sortu daitezke, adibidez: ekaitzez, zuzatzak tximistak erakarten dabezalako; beroaz hezetasunik ez dagoalako; sumendiakaitik, lurrikarakaitik eta harri bik talka egindakoan.

Suteak hiru fase daukiez: hasikerea, hedakuntza eta itzaltzea.

Hasikerea: sutea hasten edo izetuten dan momentua da.

Hedakuntza: sua zabaltzen danean.

Itzaltzea, iraungitea edo hiltea: sua amatau, iraungi edo hiltzen dabenean.

Basoko suteak landaretzea eta fauna kontrol barik erretzen dabez. Abiadura eta indarra garrantzitsuak dira.

Sute mota desbardinak dagoz. Batzuk zorutik zabaltzen dira, zuztarretatik, material organikoak aprobetxatuta. Astiro erretzen dira.

Azalerako suteak lurrean bo-

tata dagoan orbela eta egurra erabilten dabe erregai. Zuzatzen adaburuetatik zabaltzen diranak ikusgarrienak dira.

Animalia asko hil egiten dira suteen ondorioz. Txoriak ez, hegaz egiten dabelako; baina euren kumeak erre egiten dira hegaz egiten ez dakielako. Sua itzaltzen danean, euria egiten badau, urak txingarrak erre kara errotan

dauz eta arrainak hil egiten dira. Animaliak behartuta dagoz beste leku batera joaten. 2016an munduan 125.000 sute inguru egon ziran.

Etxe baten bizi bazara gomendagarria da su-itzalgailu bat izatea.

Gomendagarria da zapi bat aurpegian jarri eta makurtuta ibiltea. Sutea ikusi ezker, deitu 112ra.



Aurten Galizian 146 sute egon dira. Horrek kezka handia sortu dau.

Horreetako 60 gurata egindakoak izan dira.

Hiru hildako egon dira. Suhiltzaileak hilotz bi topau dabez kixkalduta auto baten sartuta, iges egiten saiatu ziralako. Erre diran leku gehienak A Coruña eta Pontevedran izan dira. Handienetako bat Portodesoekoa izan da. Bertan Baroña, Queiruga eta Xuño parrokietan 500 hektarea erre ziran. Basoan izan arren herrietara hurbildu zanez oso arriskutsua izan zan.

AGENDEA

ABENDUAK 1
ARANTZAZU

20:30ean, *Putinen guardasola* ikuskizuna Kultur Gunean. Ramon Agirre eta Inazio Tolosa.

AREATZA

18:00etan, Ana Apika kontu kontalariaren eskutik *Ipuin sorta* familiarentzako ipuin kontakizuna (4 urtetik gorakoentzat); 19:00etan, txokolata Gurasoen Elkartearen eskutik plazan.

18:00-20:00, OEEk antolatuta, material bikitea errefujiadu eta migratzaileentzat: kanpindendak, esterilak, motxilak eta oinetakoak. Txiringitoan.

Abenduaren 1ean eta 4an, 19:00etatik 20:00etara, hilaren 16ko jubiladuen bazkarirako txartela erosi, urteko kuotea ordaindu edo loteria erosteko aukerea Jubiladuen egoitzan.

ARTEA

19:00etan, Kultur Etxearen berrinaugurazioa. Arkaitz Estiballes, bisitea, eta ostein kopautxo egongo da. 21:00etan, Mikel Markezzen kontzertua.

BEDIA

17:00etan, Euskerearen Egunaren inguruko tailerrak ludotekan.

DIMA

17:45ean, Gotzon Aurrekoetxearen berbaldia "Hitanoa" Abaro gelan; 18:45ean, "Gorputzak marxan" zunba saioa Bea eta Ainararen eskutik frontoi txikian; 20:00etan, kantu triki-poteoa Zamakola korua, Kantu bat gara eta Jon Loiolagaz. Taloak.

IGORRE

2018ko urtailaren 5era arte, *Wilhelm von Humboldt, Euskaldunen herrien barrena 1801-2001* erakusketea.

LEMOA

Euskerearen Eguna ospatzeko hainbat ekintza goizean zehar: abestiak megafoniatik, Harrotxuren bisitaldia, unidade didaktikoaren lanketea, jolasak patioan, euskereagazko konpromisoa sinatzeko murala, euskal jantzak, sari banaketea eta kantuak eskolan. 19:00etan, Euskerearen Eguneko kale ikuskizuna Abxetatik abiatuta Udalaren eskutik.

ZEANURI

18:00etan, talo tailerra, talo jana eta kantu poteoa.

ZEBERIO

20:00etan, Austari Mendi Taldeak antolatuta, Mikel Zabalzaren *Transantartika* bideoa. Udaletxean.

ABENDUAK 2

AREATZA

20:00etan, St. Andrews Day The Quiet Corner-en.

BEDIA

16:30ean, Arratiako Pastoralzako Bedia eta Igorreko gazte taldeak antolatuta, Altxoraren bila plazan.

DIMA

10:30ean, Dimesten hormairudia eskolan; 12:00etan, ekitaldia eskolako aretoan; 13:30ean, trikitilariak; 17:00etan, bertso-eskupelota partidua frontoi txikian; 18:00etan, Jantzari finak jantza taldea frontoi txikian; "Aske maitte, aske bizi" eta "Euskeraz bizi gura dot" umeen koreografiak; 19:00etan, trikitilariak eta gaztaina-gorringoak.

IGORRE

08:30ean, San Kristobaleko martxea plazatik urtenda. Ostein, opariak eta kopaua.

22:00etan, zinea *Blade Runner 2049*.

ZEANURI

Sanandresak Asterman. Ikusi egitaraua 6. orrialdean.

ABENDUAK 3
ARANTZAZU

11:00-14:00, jolasak frontoian; 17:00etan, murala margoztu plazan; 18:00etan, txokolata Herriko Tabeman.

AREATZA

Parketxeak antolatuta, "Gorbeia kirikiño hesiak ezagutzen", Iñaki Garcia Unibegaz. Izena 94 673 92 79 telefonoan edo gorbeia.parke.naturala@bizkaia.eus-en emon.

Euskerearen Eguna. 11:00etan, kalejireia bistulariakaz; 11:30etik 13:30era, "Euskera plazara atera" herri irakurketea eta bitartean tailerrak plazan;

13:30ean, Areatzako bertsolariak; ostein, "Euskal Herrian euskaraz" kantuaren koreografiaren grabaketea. Amaitzeko, Bernardo Abagaren "Minutu bateko manifestuaren" irakurketea.

ARTEA

13:00etan, poteo-kalejireia albokariakaz.

DIMA

11:00etan, umeentzako herri kirolak, Olar Herri Kirol taldeagaz; 12:00etan, mezua eta Gaztebarri jantza taldea, eta 12:30ean, Euskal Herriko Lasto Botatze Txapelketea frontoi handian; 14:00etan, trikitilariak.

IGORRE

17:00etan, zinea *Hurak eta lapurrak*; 19:30ean, *Blade Runner 2049* Lasarte Aretoan.

ZEANURI

Sanandresak Asterman. Ikusi egitaraua 6. orrialdean.

ZEBERIO

11:00etan, "4 ordutan, 400 baietz". Plazea-Ermitabarri-Plazea; 12:00etan, umeentzako jolasak; 13:00ak aldera, talo txorizoa eta urdaigaz; 15:00etan, erronka lortu dan konprobau, manifestua irakurri eta globoak soltau.

ABENDUAK 4

BEDIA

18:00etan, Euskerearen aldeko Leloen eta Gabon Txartelen Lehiaketako sari banaketea liburutegian. Goazenteko kide bien sinadurak eta Photocall-a.

Hilaren 15era arte, Lehiaketan parte hartu daben marrazkien erakusketea liburutegian.

ZEANURI

15eko Pirritx eta Porrotxen ikuskizunerako sarrerak salgai udaletxean Zeanurikoentzat.

17:00etan, Corbeia Jubiladuen alkarteak antolatuta, Tute, Mus eta Briska Txapelketak jubiladuean. Ostein kopaua partaide guztientzat.

ABENDUAK 5

AREATZA

19:00etan, *El nunca me pegó* dokumentala eta Irantzu Varelagaz barniketaldia udaletxeko Aretoan.

ZEANURI

15eko Pirritx eta Porrotxen ikuskizunerako sarrerak salgai udaletxean Zeanurikoak ez diranentzat.

ABENDUAK 7

LEMOA

Ganzabalek antolatuta, urtekera 10era arte Guarara. Pico del Aguila-Tozal de Guara-Peña de Sen.

ABENDUAK 8

ARTEA

20:30ean, Pau Alabajos bakarleri valentziarraren kontzertua Herriko Bentan.

IGORRE

12:00etan, Sortuk antolatutako berbaldia "Herri batasunaren eraikuntza. Errepublikaren defentsarako komiteak" Esquerra Independentistaren eskutik. Axular Herriko Tabeman.

ABENDUAK 9

IGORRE

22:00etan, zinea *Oro* Lasarte Aretoan.

ABENDUAK 10

AREATZA

Laminoren Turroi Eguna. Urkiola-Saibi-Zumeltza.

BEDIA

Ganguren Mendi Taldeak urtekera. Turroi Eguna.

IGORRE

Igorreko Ziklo-krosa. Ikusi egitaraua 11. orrialdean.

17:00etan, zinea *Deep el pulpo*; 19:30ean, *Oro*.

ABENDUAK 11

IGORRE

18:00etan, Laila Lili eta Arantza Chaconen berbaldia "Andren papela Mendebaldeko Sahararen gatazkan". Kultur Etxean.

ABENDUAK 12

BEDIA

19:00etan, Erregeen Kabalgatan parte hartzeako batzara eskolatan.

ABENDUAK 14

ZEANURI

18:00etan, Arratiako Guraso Eskolearen tailerra Yolanda Abagaz: "Nola jabetu gure emozioez? Adimen emozionala garatzeko estrategiak". Kultur Etxean.

ABENDUAK 15

BEDIA

Gabonetako Jaia. 17:00etan, erakusketea, eskularen salmenta, talo tailerra eta irintzi tailerra; 18:30ean, Bediako koru jantzen taldearen eta umeen euskal jantzen erakustaldia; 19:15ean, zunba masterdassa.

17:00etatik 20:00etara, Tupper Sex Feminista Amaia Urrejolaren eskutik. Kultur Etxean.

IGORRE

18:00etan, 3-5 urte bitartekoentzat eta 18:45ean, 6-10 urte bitartekoentzako *Olentzero maittea* ipuin kontaketea liburutegian.

ZEANURI

18:00etan, Pimtx eta Porrotxen *Borobileen* ikuskizuna frontoian.

ABENDUAK 16

AREATZA

Uparan Jubiladu eta Pensinodunen alkarteko Bazkidearen Eguna. 13:00etan, hildako bazkideen aldeko mezea; 14:30ean, bazkaria Hotelean.

20:00etan, Lobo & Carmine The Quiet Corner-en.

20:30ean, Corbeia Music Festivaleko rock gaua.

Condon Blues eta Disk Breakers taldeak Gaztebearen.

BEDIA

10:00etatik 14:00etara, Tupper Sex Feminista Amaia Urrejolaren eskutik. Kultur Etxean.

IGORRE

17:00etan, Kantu Koloreren *Jalgi hadi dantzara* umeentzako erromeria. Lasarte Aretoan.

22:00etan, zinea *El secreto de Marrowbone*.

ZEANURI

09:30ean, Corbeia Jubiladuen alkarteak antolatuta, ibilaldia. Plazea-Ortuzar-San Lontzo-Urbe-Zulaibar-Plazea.

ABENDUAK 17

BEDIA

11:00etatik 14:00etara, parrokiak antolatuta, Alto Trujilloko Fe y Alegria eskolaren alde, katekesiko umeak egindako eskulanak plazan.

IGORRE

17:00etan, zinea *La isla de los monstruos*; 19:30ean, *El secreto de Marrowbone* Lasarte Aretoan.

La ardilla roja Igorreko Zineklubean

Alde eta kontrako kritikak jaso ebazan 1993an Julio Medemek zuzendutako film honek. Sariak be bai. Estreinaldi urtean Cannes-eko Gazteriari saria eta hurrengo urtean, pelikula onenari saria Bogotako festibalean, barbarako.

Nancho Novok, Emma Suarezek, Carmelo Gomezek, Karra Elejaldek eta Elena Iruretak, beste batzuetan artean, egiten dabez aktore beharrak.

Sinopsia

Udako gau baten, Jota bere burua hiltzen saiatzen da, baina bat-batean motor istripua izan dauan neska bat ikusten dau. Jasotako golpea dala-eta, neskeak amnesia dauka, ez dau ezta bere izena gogoratzen be. Jotak sinistu arazoten deutso bere izena Lisa dala eta bere andrangaia izan dala atzen lau urteetan.

IRAGARKI LABURRAK

SALDU

EGURRA SALTZEAN DA

Pago egurra saltzean da sua egiteko. 45€/tona. Gura izan ezker neurri zatituteko aukerea dago. Informazio gehiago 688 602 516 telefonoan.

DANERIK

LAN ESKEINTZA

Lan eroso eta ondo ordaindutakoa eskeintzen dogu. Telekomunikazio enpresa baten, autonomo edo kolaboratzaileen bila gabiltz, ordutegi barik eta komisino handiak pagauta. Deitu 662 568 707 telefonoan.

GARAJEA BEHAR DOT

Karabanea itxeko garajea behar dot Arratian. 7 metroko luzeera eta 2,60 m.ko altuera. Deitu 675 712 841 telefonoan.

TRUKEA

Arratian (Areatza) bizi dan neska alemaniar/danimarkarrak beragaz ingelesez edo alemanieraz praktiketako aukerea eskeintzen dau, gaztelania

praktiketea aukerearen truke. Interesdunak 634 445 924 (Sophie) telefonora deitu.

GARAJE PARTZELA ALOKAIRUAN

Zeanurin, Ibarretan garaje partzela bat alokatzen da. Interesdunak deitu 94 673 92 96 telefonora.

ALOKAIRUA

Usansolon fisioterapia zentroa alokatzen da. Behar dan guztiagaz horniduta, funtzionamentuan eta prezio interesgarrian. Telefonoa 690 107 156.

Zeozer saldu, erosi, alokatu, trukea egin, behar edo behargin bila bazagoz, bidali asko jota 25 berbako mezu bat. begitu@topagunea.com-era. Mezuak doban dira.

Begitu-lagunen txokoa

Zenbaki honetako saridunak:


1 Igorreko Kultur Etxeak emondako bina sarrera Kantu Koloreren ikuskizunerako.

Inma Sagarna (Zeanuri)
Iratxe Gondra (Igorre)



2 Igorreko Kultur Etxeak emondako bina sarrera Oro filmarako.

Josu Nuñez (Zeberio)
Leire Amuriza (Otxandio)




Zerturen argitalpenak jasoko dozuz,

zozketetan sartuko zara.

BEGITUK 15 urte eta ehundaka lagun.

DENPORA-PASA

IMAN OLATU




EZKERRETIK ESKOIERA

1.- Hamarretako. 2.- Oxigenoa. Malko. 3.- Birritan, asmo. Begi-mamin. 4.- Kortezubiko udalerriko herrigunea. Nitrogenoa. Bokala. 5.- Letra bat. Ordainketa. 6.- Musika nota. Grezia klasikoko olerki lirikoa. 7.- Beilegi. Galdera aurretik. 8.- Espiritua. Konsonantea. 9.- Ebaluau.

GOITIK BEHERA

1.- Bigun ez. Langile Abertzaleen Batzordea. 2.- Bokala. Sanskritoko silaba sagradua. Birritan, barra-barra. 3.- India. Jorrail. 4.- Txinako budismoaren joera. Bokala. Heldu, sasoi heldutakoaz esaten da. 5.- Zeregin. Emea ez dana. 6.- Mailu-golpearen onomatopeia. Urteko sasoi bat. Bokala. 7.- Janariak prestatuko erabilten da. Goi.



Topau lorategian egon leitekezan zazpi gauzaren izenak.

D	O	N	I	B	E	K	U	A	K
I	U	B	E	S	A	T	S	A	U
N	R	A	E	U	T	E	T	L	R
K	E	R	A	D	A	G	E	R	A
O	Z	K	I	L	A	I	M	E	P
M	T	O	I	T	U	R	R	I	A
A	O	L	E	R	A	T	R	U	N
G	N	H	I	R	U	A	B	A	I
O	T	X	A	G	E	R	A	P	U
T	Z	E	B	L	I	X	T	A	F
S	I	G	O	R	T	E	G	E	R
O	A	B	K	E	R	A	M	R	I
K	R	A	A	U	N	I	P	O	N
A	R	K	A	K	O	S	U	L	A
M	A	G	I	K	O	L	U	Z	A

AKI MI KO

Zorrozkiilo



umaan moda
sew
0-16
Agirre Lehendakaria, 31 • 48140 IGORRE
Tfnua. 94 631 92 96 • sewmoda@hotmail.com

Dia %
PEDRO
AUTOZERBITZU
Sabino Arana, 35 48.140 Igorre
Tel. 94 631 15 26

AKEITEGLI
GAY & LORA
IGORRE

Igorren
ARKITEKTOA
Aitzol Aurrekoetxea Pujana
Lehendakari Agirre 23, behea
aitzol@coavn.org - 675 705 111

Recreativos Gubi S.L.
Angel Larrea
Zornotza Tlfnoa 649 86 95 36

KIRRU
ILEAPAINDEGIA
ROSANA eta ROBER
SABINO ARANA 38
IGORRE
Tlf. 94 631 92 00

GARANTXE
Autoeskola
TEORIA EUSKARAZ
ZEIB ERDARAZ
Lehendakari Agirre 31
Tfnua: 94 673 71 32
48140 IGORRE (Bizkaia)
garantxe@euskalnet.net

ZUZENBIDE
ASEGURUAK:
AUTOAK
ETXEBIZITZAK
DENDAK
ISTRIPUAK
BIZITZA...
ABOKATUAK:
ZUZ. ZIBILA
KONTSUMO ZUZ.
ADMINISTRAZIO ZUZ.
INGURUGIRO ZUZ.
AHOLKULARITZA:
LAN ZUZENBIDEA
ZERGAK
KONTABILITATEA
Tlf. 94 673 71 41 - 94 673 70 55 - 94 612 11 96 - Faxa 94 612 11 96
Sabino Arana 3, behea - Igorre (Bizkaia)

BIXER
TABERNA
Beko kalea, 2 - Telf. 94 631 73 65 - VILLARO

Jose Luis
Corbacho
pintura lanak
Sabino Arana, 3. 3a
Igorre 48140 Bizkaia
94-673-70-87
609-79-49-54

ZEKUTZE
JATEETXEA
Sabino Arana, 34
48140 IGORRE - Bizkaia
Tel: 94 631 52 83
zekutzejateetxea@hotmail.com

Pinturas Aratia
Javi Morato
Tel. 628 443 992

ARRATIA AUTOESKOLA
karneta euskaraz zein erdaraz
Gorbe, 10 - 48140 Igorre (Bizkaia)
Telefona 94 631 36 31 Faxa 94 673 70 83
e-posta: vnozulu@euskalnet.net



Oraineko larri lezetakoak

Gure

ikastetxeak

Euskalduna
kalidadezkoa
herrikoa

<p>JB Eguzkiza Meabe HI Tel.: 94 631 32 28 Lemoa</p> <p>Ugarana HI Tel.: 94 631 55 32 Dima</p> <p>Zubialde HI Tel.: 94 648 06 82 Zeberio</p> <p>Zeanuri HI Tel.: 94 673 93 33 Zeanuri</p>	<p>Ikastola Arratia HI Tel.: 94 673 90 65 Artea</p> <p>Arratia BHI Tel.: 94 673 62 37 Igorre</p> <p>Areatzako Herri Eskola Tel.: 94 673 90 93 Areatza</p> <p>I. Zubizarreta HLHI Tel.: 94 673 60 22 Igorre</p>
---	--

ALKIZABAL

ZURE BEHARREI ERANTZUNA

Bolunburu Poligonoa, 19
Amorebieta - Lemoa errep.
48330 LEMOA (Bizkaia)

Tel. 946 31 44 06
Fax. 946 31 20 26
alkizabal@alkizabal.net

www.alkizabal.net

ERAIKUNTZA ETA INDUSTRIARAKO SOLUZIOAK

ERAIKUNTZA, LOREZAINZA, EKITALDI ETA INDUSTRIARAKO MAKINERIA KONPONKETA ALOKAIKUA ETA SALMENTA

ZURE ZERBITZURA

- ✓ Avia guztira 176 gasolindegil
- ✓ Avia Adenor 35 gasolindegil

ADENOR Igorre
www.aviaenergias.es

GURE BIHOTZA

- ✓ Operazio-Zentroa
- Bilboko Portu Autonomoan

vogue | ROXY GUESS POLICE | GOLF | CEBE | V&L | Pirelli

Olaxte
OPTIKA ZENTRUA

Sabino Arana 3, 48140 IGORRE (Bizkaia)

Varilux kristalen
promozio berria
monofokal zein
progresiboetan.

Erdü eta galdetu
baldintzak.

Zure 2. kristal parea opari

VARILUX®

94 657 70 03 | olaxteoptika@hotmail.es